



Udaberriko
lore eta
landareen
azoka Seguran

Iparra-Hegoa
kultur astea

Mikel
Martikorena
Saharako
maratoian



VAC
VAC



BERTAN_{S.L.}
EGUR BILTEGIA

VACSOL - WPP TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Ibai-Ondo industrialdea, 5 pab. 18 area



ITSASONDO

PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA

Tel. /Faxa: 943 163 102

Aprobetxa ezazu uda hizkuntzak ikasteko



Nick's
ENGLISH CENTRE

Nick Knight

J.M. Barandiaran, 1

© 943160051 - 686320515

E-mail: nick@facilnet.es

ORDIZIA

*Zenbat aldiz pentsatu
duzu zure ingeleseko behar duzula?*

- Ingalaterran egonaldiak
- Urtean zehar maila guztientzako klaseak, haur, gazte eta helduentzat
- Kontsultatu inongo konpromezurik gabe



DO'S HIZKUNTZAK

2001.eko UDA

- ☀ Ingelera, frantsesa, alemaniera eta euskara
- ☀ Udako ikastaro trinkoak Beasainen
- ☀ Sheffield Centreko ordezkaritza
Ikastaroak atzerrian: Ingalaterra, Irlanda, Frantzia, Alemania, USA, Kanada
Lan praktikak: Ostalaritza, Au-Pair
- ☀ Cambridgeko Unibertsitate, Frantziako Aliantza eta Goethe Institutetako azterketetarako prestakuntza
- ☀ Talde txiki eta berdinek adinen arabera
- ☀ MULTIMEDIA sistema (aukeran): azkeneko teknologia zure esku, ordutegirik gabe, zuk aukeratzeko duzu.
- ☀ Laguntza pertsonalizatua

ZATOZ ETA APROBETXATU UDA

Nafarroa Etorb. 1, 'Etxe Ubi' BEASAIN

© 943 880 346 E-mail: dosidio@adeqi.es

interlang

International Language Services



Ingeles eta aleman ikastaro trinkoak udarako



Haur, gazte eta helduentzako hizkuntz ikastaroak atzerrian, lan praktika, kirol eta bestelako ekintza askorenkin



Itzulpen gintza eta enpresatarako hizkuntz zerbitzu orokorrak



Au-Pair: gestio azkarra eta kontu haundiz aukeratutako familiak



Lan esperientzia atzerrian:
Irakasle goa eta begiraleak U.S.A.-n;
ostalaritza eta abar

Kolon, 5

☎ 943 27 81 61
DONOSTIA

J.M. Iturrioz, 11 - 1.

☎ 943 16 05 72
BEASAIN

Elkano, 8 - 1.

☎ 943 88 11 37
ORDIZIA



The Clover School of Languages

**MATRIKULA
DOHAINIK**



Uda honetan ere ingelera eta frantseseko beharrei erantzuteko gaude

Domingo Unanue Plaza, 5

☎ 943 16 20 16

ORDIZIA

Non zer

3 HAMABOSTALDIAN

NABARMEN: Mikel Martikorena Saharako maratoian.

6 AHOLKUA: Naroa Arrieta

7 TXANDAKA: Idurre Eskisabel

8: Korrika 12 Goierrin

9: Iparra-Hegoa Seguran

10: Udaberriko lore eta landareen I. azoka Seguran

12-22 KRONIKAK

ATAUN 12: Beatifikazioa.

LAZKAO 13: Kulturaldia.

ZERAIN 13: Diapositiba emanadia. **IDIAZABAL 14:**

Badator Korrika.

GABIRIA 15: Kultur

astea. **MUTILOA 15:**

Bola saioak. **BEASAIN**

16: Udaberri Gaztea.

ZALDIBIA 17: Mus

txapelketa. **ORMAIZTEGI**

18: Turismo giden

aurkezpena. **ORDIZIA 19:**

Korrikako ekitaldiak.

ZEGAMA 20: Euro

txanponaren astea. **SEGURA**

22: Ekitaldiz gainezka.

ITSASONDO 23: Mountain bike probaren emaitzak.

LEGORRETA 23:

Sukaldaritza ikastaroa.

26-27: AGENDA

29: ZAHARRAK BERRI:

kanpaien hizkuntza

30: FOTO ZAHARRA:

beasaindarrak



Mikel Martikorena Saharako maratoian: Kirola eta elkartasuna

Madrilgo Gobernuz Kanpoko Erakunde batek antolatu zuen Saharako maratokia otsailaren 27an. Bide batez arropak, janaria eta sendagaiak eramanez. Bertan izan zen Ordiziako Mikel Martikorena.

Mikelek lehen Santanderko 100 kilometrotako lasterketa egin zuen eta beti izan ditu gogoko zerbait berezia duten lasterketak. "Aspalditik nuen horrelako zerbait egiteko gogoia, desertuan korrika egiteko gogoia. Ideia polita iruditu zitzaidan, sahararrei lagundu eta aldi berean desertuan maratokia korritzea", dio.

Maratokia berez gogorra bada, desertuan oraindik ere gogorragoa. Mikelek dionez, "Tenperatura altuaz gain, ibilbidea nahiko gaizki zegoen seinalizatua eta zoru egokienaren bila itzulindurak ematen genituen, beraz 42 kilometro baina gehiago egin genituen. Lasterketa haseran hotz egiten zuen, 7 gradu, baina eguerdirako bero ikaragarria egiten zuen, 35 gradu. Lasterketa guztian zuhaitz bakarra ikusi genuen, eta hura erabat lehortuta zegoen. Ura 2'5 kilometroero ematen ziguten baina hondar gainean eguzkitan egon-

da oso beroa, edaterik ere ez zegoen".

Maratoian 80 bat lagunek parte hartu zuten, baina, lasterketa ezberdinak egon ziren, 5, 10 eta 21 kilometroetakoak. Oraindik ez daki zer postutan bukatu zuen, baina 4 ordu t'erditan egin zuen. "Denbora asko, baina... Irabazleah sahararra izan zen eta 3 ordutan bukatu zuen lasterketa. Bertakoei etxe-ko zapatilekin, oinutsik, futboleko botekin, edo ahal zuten bezala egiten zuen korrika".

5 egun egin zituzten Saharan. "Oso esperientzi polita izan zen. Gogorra da bertako jendeak ezer ez duela ikustea, han ez dago ez urik, ez landaretzarik, ez ezer. Bizimodu gogorra da bertakoa. Baina beraiekin izan dugun harremana oso polita izan da. Oso irekiak dira, batez ere umeak. Beraiek ez dute ezer, bizitza bakarrik dutela esaten dute eta berriro gerra badator prestatuta daude, zer galdurik ez dutela diote."

Bertakoen etxeetan, haimatan, bizi izan ziren 5 egunetan. Bazkaldu eskola batzuetan egiten zuten eta gosari eta afaria etxeetan. "Gamelua jaten genuen, oso goxoa gainera".

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Aitziber Murua, Mari Flor Mendizabal, Nagore Etxeberria, Iñaki Ugalde, Idurre Eskisabel, Txindoki-Alkartasuna Institutua.

Azaleko argazkia: Gurutze Irizar

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.000 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria

Lehergailua Beasainen

Martxoaren 9ko goizaldean lehergailu batek eztanda egin zuen Beasaingo Urbialde plaza eta Nekolalde kalearen artean. Kalte material handiak izan ziren inguruko etxeetan eta Andramendi Beasaingo Ikastolan. Hasieran postetxearen aurkako eraso izan zela esan bazen ere, oraindik ez dago argi zeren edo noren aurkako atentatua izan zen.



Arkume enkanterik ez Ordiziako azokan

Bretainia Handian abereetan azalduko aftosa sukarra dela eta, hemengo animaliak kutsa ez daitezzen, neurri berezia hartu zen martxoaren 7an Ordiziako azokan. Arkumearen enkanterik edo subastarik ez da egin egun horretatik, artzainak, harakinak, EHNE sindikatua eta Foru Aldundiko Nekazaritza Saila hala adostu baitzuten. Orain, Tolosako hiltegiara zuzenean eramaten dituzte artzainek arkumeak eta harakinek bertan erosten dituzte. Hurrengo alean izango dugu informazio gehiago.

Dena den, EHNE sindikatuak adierazi zuenez, "Azoken debekuak ez du bururik ez hankarik. Izan ere artalde ezberdinak elkarren ondoan bazkatzen dute eta bide berberak erabiltzen dituzte. Beraz, ez du zentzurik hiltegiako bidean debekua jaritzeak. Auziari irtenbidea eman behar zaio, zentzuzkoa, eta gaixotasuna bertara iristea saihestu behar dugu, mugetan neurri egokiak jarritz".



Jon Mikel Murua (Nekazaritza diputatua), Nikolas Osinalde (Goiturreko arduraduna), Vasilka Paplomas (Bulgariako enbaxadorea), Iñaki Maiora (Ormaiztegiko alkatea), Mari Karmen Garmendia (Kultura sailburua), Koro Garmendia (Jaurlaritzako Turismo sailekoa), Joxe Ramon Beloki (Ekonomia eta Turismo diputatua) eta Nekane Goenaga (Diputazioko turismo sailekoa)

Goierriko turismo giden aurkezpena

Martxoaren 8an, Ormaiztegiko Zumalakarregi museoaan aurkeztu zituen Goiturreko Goierriko turismo gidak. Goierriin egin daitezkeen zazpi ibilbideak eta Goiturren barruan dauden establezimenduen berri ematen da gidetan, Goierriko festa egunekin batera. Orain gainera, Goierriko 54 puntu ezberdinetan, Goierri buruzko informazioa egongo da eskura-gai, Goitur osatzen duten establezimenduetan, hain zuzen ere.

Nikolas Osinalde Goiturreko arduradunak aurkezpenean esan zuenez, salto kualitatiboa eman da. Orain arte, Goierri non zegoen aurkeztu zen, bertako pertsonaiak... Orain, berriaz, Goierriko turismo ibilbide ezberdinen bilketa.

Bulgariako enbaxadorea aurkezpenean izan zen eta bere herriarekiko antzekotasunak azaldu zituen.

Aurkezpenean izandako guztiek, Goierriko turismoan alde emandako beste urrats bat gehiago dela esan zuten.

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza
obra social

Txindoki-Alkartasuna eta ingurumena

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Bigarren Hezkuntzako Institutuak, duela 4 urte ezarri zuen Ingurumen Kimika izeneko Goi mailako Heziketa Zikloa. Ordutik, gure ikastetxeak ingurugiroarekiko duen sentiberatasunaren seinale, Ingurumen Kudeaketako Sistema martxan jarri zuen ikastetxean sortzen diren hondakinei trataera egokia eman nahiez. Horretarako Ingurugiro politikaren, alderdien eta jokabideen Eskuliburu garatuta eta ezarrita dauka.

Udaberriari oles eginez eta gaurko gizartearen hain gordin-ki azaleratzen ari diren ingurumenarekiko eraso eta kez-
kak bultzaturik, kontzientzia-
zio eta formazio ekimen bere-
ziak antolatu ditugu martxoan
zehar. Hona hemen egintza
nabarmenenak:

Martxoak 14

Arabako campuseko Geogra-
fia departamenduko kolabo-
ratzaile den Urko Elozegi
"Garapen jasagarria" gai-
az aritu zen hainbeste hauts
arrotzen ari den Espainiako
"Plan Hidrológico Nacio-
nal"-ari aipamenak eginez.



Martxoak 26

Roberto Bermejo EHUKo ira-
kasle den injeneru eta ekono-
mialariak "EAEko inguru-
men esparruen egoeraz" hitz
egingo du. Ingurumenari bu-
ruzko bi liburu eta hainbat ar-
tikulu argitaratuak ditu. Ba-
keaz mugimendukoa da. Ba-
kearen, antimilitarismoaren,
segurtasun politiken,
GKE/ONGen, etab.en defen-
datzaile sutsu honek ekono-
mia ekologikoaren aldeko
apustua egingo du.

Martxoak 27

Alberto Frias arabarraren hitz-
aldia. Filosofia, ekonomia
eta zuzenbide ikasketak egin-
dakoa da. Eguzki talde ekolo-
gista eta lurraren defentsan
eredu alternatibo eta demo-
kratiko baten alde diharduen
Lurra Deialdiko kide da.
"Euskal Herri-
tik Euskal Hiri-
ra" hitzaldia eskainiko du.

Garapenaren izenean, Euskal
Herria nortasun propiorik ga-
beko megapolis neoliberal
handi bat bihurtzeko dagoen
arriskuaz eta erronka honi au-
rre egiteko lurraren defentsan
ariko den mugimendu zabal
eta suspertzailea bultzatu be-
harraz jardungo zaigu.

Egun berean, Lur eta Ingu-
rugiroa ikasgaiko irakasle eta
ikasleek, "Ibaialde" progra-
maren barruan, Mariarats
errekaren azterketa saioa
egingo dute. Saio honetara
nahi duten beste ikasleak ere
gonbidatuta daude.

Martxoak 28

Egun honetan Ingurumen Ki-
mika goi mailako Heziketa
zikloko ikasleek antolatu du-
ten Hondakinen erakusketa-
informaziotegia bisitatuko
dute institutuko ikasle eta ira-
kasleek. Erakusketa aste oso-
an zehar zabalik egongo da.

Martxoak 29

Gure eskualdean hain ezagu-
na zaigun Sasieta zabor bilte-
giko Enrike Enparantzak ger-
tutik ezagutzen duen "Honda-
kinen kudeaketa" gaiari bu-
ruzko jardun interaktiboa es-
kainiko digu.

Martxoak 30

Aipatu egintza guzti hauei
txapela jartzeko Ingurumen
Kimika Goi mailako Hezike-
ta Zikloko ikasleek ekitaldi
"sorpresa" bat antolatu dute.

Nabarmendu ditugun
egintza hauez gain, honako
hauek seinlatu behar dira:

1. Mintegi desberdinek bere
klase ordutan, ahoz nahiz ida-
tziz, Ingurumenarekin zeriku-
sia duten gaien inguruko la-
nak egingo dituzte. Globali-
zazioa, energia alternatiboak,
etab.en inguruan bideo ema-
naldiak, debateak... burutuz.

2. Ingurumen Kimika Hezi-
keta Zikloko ikasleek ikaste-
txean ezarrita dagoen Inguru-
men Kudeaketa Sistemaren
inguruko formazio saioak
egingo dituzte ikastetxe-
ko ikasle guztiek.

*Txindoki-Alkartasuna
Institutua*

iBAi-ONDO
AROTEGIA

Koltxoak
Somierak

Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefona: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO
TOYOTA

ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Naroa Arrieta
Kemen KOZ

Ura osasunaren oinarri

Osasun egoera hobetzeko hainbat aholku ematea derrigorrezkoa suertatzen da, honako hauetan laburbildu daitezkeelarik; elikadura zaindu, lo nahikoa egin eta jarduera fisiko eta mentala landu.

Honako aholkuei jarraituz gero ziurrenik hobeto sentituko garela. Halere, dieta orekatu bat jarraitzeak ez du esan nahi soilik jakiei kontu egin behar diegunik, barneratzen ditugun janariak bezain garrantzitsu izango baita edaten dugun Ura.

Zergatik da hain garrantzitsua edatea?

- Gorputzaren % 60-65-a osatzen duelako.

- Egunean zehar gutxienez 2-2.5 litro ur galtzen ditugulako arnasketan, izerdian, gernu nahiz gorrozkietan.
- Ur biltegirik ez dugulako, beraz galtzen dugun heinean edaten ez badugu ondorio latzak gerta daitezkeelako; buruko nahiz muskulutako minak, zorabioak eta heriotza azkeneko kasuan.

Nola, noiz eta zenbat edan behar dugu?

- Uretan aberats diren elikagaiekin 1 litro ur berrera dezakegu. Frutak eta barazkiak dira uretan aberatsenak. Edari bidez, gelditzen diren 1-1.5 litroak osatuko ditugu, zenbait infusio, zuku eta ura egokienak izango direlarik.
- Egarri izan aurretik hasi behar da edaten, deshidratazio maila batera iritsi arte (%1-a) ez baikara jabetzen egarri gerarik. Jarduera fisikoan askoz lehenago hasi be-

harko genuke edaten errendimendua asko murrizten baita deshidratazio txiki batekin.

- Ur kantitate beharrak pertsona guztiengan ezb erdin badira ere gutxienez 4 baso ur (1 litro) edan beharko lirateke egunero. Ur kantitate haundiak edatea (3 litro-tik gora) ez litzateke arriskutsua izango osasun egoera normal batean, halere, tentsio altu, giltzurri edota bihotz gaixotasunean gehiago kontrolatu beharko dugu ur konposizioa (zenbait minerale) eta kantitatea. Gernuan fijasen bagara, kolore argia izan beharko luke, baldin eta gaixotasunik ez badago edota zenbait botika hartzen badira. Maiztasuna izango da modurik egokiena, hobe baita egunean zehar edaria banatzea.

Urik gabe bizi ezin dela jakinik eta eskaintzen di-tuen abantailak ikusirik, zergatik ez gehiago edan?

Euskara txukunean

Arazo asko Arazo handia

Arazo asko ala arazo handia, nola esan behar da? Gauza bat da **arazo asko**, hau da, bi, hiru,... hamaika,... mila arazo ditugu. Beste gauza bat, ordea, **arazo handia**: bat, bakarra, baina ez nolanahikoa. Garbi dago, beraz, biak dira zuzenak, bakoitza bere testuinguruan, noiz eta zer esan nahi dugun kontu.

Pazientzia asko Pazientzia handia

Orain, **pazientzia asko** ala **pazientzia handia** esan behar da? Pazientzia, bakarra izan ohi da, batzuetan handia, bes-teetan eskasa; beraz, **pazientzia handia** edo **pazientzia gutxi** edo **eskasa**, baina ez **pazientzia asko**.

Maizpide Euskaltegia

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Ford
MUJIK



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

Lehiaketa

Galdera

Noiz pasatuko da Korrika Goierritik?

Erantzuna apirilaren 2rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria

Kilometroak 2001eko kamiseta

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Iban Urdangarin.

Irabazleak:

Inork ez du asmatu.

Galdu arte

"Irabazi, irabazi dugu, odol eta malkoz irabazi dugu". 70eko hamarkadako urte loriatsuetan Lupek uste dut kantatzen zuela lelo mingots eta, aldi berean, hunkigarri hori. Irabazi dugula aldarrikatzen genuen orduan, eta irabazi dugula aldarrikatzen dugu orain: euskal independentismoa inoiz baino indartsuago eta ezker abertzalea inoiz baino sendoago dagoela ozen oihukatzen.

Hala ere, ia 30 urte daude tartean, eta garaipenaren arrastoak inon gutxi. Odola eta malkoak, aldiz, ugari: ez alde batean eta bestean bakarrik, baizik eta inguru guztiguztian, errealtatea ez baita bitan banatzen, hori baino korapilatsuagoa baita. Inola ere, galtzetik hurbilago irabaztetik baino. Ez al dugu galdu, bada, konbentzitzeko gaitasuna? Apika, ez al dugu galdu gizartearen babesa? Ez al dugu galdu borroka dinamiken eta helburuen artean bereizteko ahalmena? Ez al dugu galdu ilusionatu eta kilikatzeo aukera? Akaso, galdera asko eta erantzun gutxi —mea culpa, aitortzen dut—.

Dena dela, saiatuko naiz badaezpadako batzuk ematen: guk galdu baino gehiago, irabazi egin digute, errepresioarekin eta armekin baino areago, tresneria mediatiko-ideologiko izugarriarekin eta gezur askorekin. Hain indartsua izan da eraso, eze gu geu ere errepresio eta armen zein gezur (txikien) dinamikan nahastu garela. Blasta-blasta sartu gara haien sarean, galeran irabazpena ikusteraino; ilusioa eta bizi poza irabazi ordeztu gizontasuna (ematasunik ba ote?) galtzeraino.

Beharbada horixe dugu galera handiena: galtzaile ikuspuntua galdu izana, eta, bidenabar, txikitasunak damaigun arrazoia mespretxatzeko joera. Galtzea eta etsitzea ez baita gauza bera, eta galeraz jabetzeak berak eman behar bailiguke ikasteko eta helburuetan aurrera egiteko indarra. Ni prest nago, behinola, Juan Luiz Zabala idazleak agertu zizkigun galduartetar-ekin bat egiteko. Izateko eta bizitzeko modu bat da, funtsean, irabazteko era bat.

Ikuspuntu horrek, behintzat, ez ote dit bestelako galerarik ekarriko.



Idurre Eskisabel
Larrañaga

YOSUTHERMIK

LEIHO ISOLATZAILEAK

- PVC leihoak
- Aluminiozko hausdura termikodun leihoak
- Aroztegi mistoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak



Erakusketa
Ipiñarrieta, 3



☎ 943 725 232 URRETXU

Fabrikatik zuzenean

Kataide industrialdea, 4 pab.

☎ 943 770 157 ARRASATE

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

UNTXUNDEI

garajea

OSINALDE

karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Ekitaldi ugari antolatu da aurreko egunetarako

Apirilaren 2an, goizean, iritsiko da Korrika Goierriara

A EK-k antolatzen duen euskararen aldeko 12. Korrika martxoaren 29an abiatuko da Gasteiztik, apirilaren 8an Baionan bukatzeko. Bitarte horretan, apirilaren 2an, Goierritik pasatuko da. Legorretatik sartuko da, 867. kilometroan, goizeko 10,15etan eta Goierriko hainbat herritan barrena 47 kilometro egin ondoren, Matximentan, 914. kilometroan, agurtuko dugu. Ondoko artikuluan, Korrikaren inguruan antolatu diren ekintzen berri duzue, eta baita Goierri Korrikak egingo duen ibilbidearen berri ere.

'Mundu bat euskarara bildu' lelopean egingo da aurtengo Korrika. 9 egunetan, 2.100 kilometrotik gora egingo dira lasterkan, euskararen aldeko kontzientzia suspertuz eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua bilduz.

AEK-ko ordezkariak goratu dutenez, Baltasar Garzon epaileak AEKren aurkako salaketak eta neurri judizialak mantentzen ditu oraindik ere eta AEKri elkartasuna adierazteko erarik onena Korrikan parte hartzea dela azpimarratu dute.

Korrika 12k Euskal Herriko bertsozale elkarteak omenatu du. Bertsolaritzak, euskararen ikuspegitik eta euska-



raz, munduari egin dion eta egiten dion ekarpena gorai-patu nahi izan da, eta halaber, garai berriei egokitzeke izan duen gaitasuna aintzat hartu.

Goierri Korrikarekin

Apirilaren 2an iritsiko da Korrika Goierriara baina aurretik, ekitaldi ugari antolatu da herri ezberdinetan. Aurreko asteburuan diru bilketak egin ziren eta Korrikako materiala ere saldu zen. Gainerako ekitaldien berri jarraian duzue.

Martxoak 23, ostirala:

Legorreta: 23:00etan, Korrika mus txapelketa, Oloso eta Guadalupe tabernetan.

Itsasondo: 21:30ean, Gazte-txean, pelikula.

Zaldibia: 22:00etan Kultur etxean, Angel Cuerdaren 'Hanges ibai sakratua' diaporama.

Martxoak 24, larunbata:

Idiazabal: 15:30ean, mus txapelketa, Mujika jatetxean.

Ibilbidea eta ordutegia

Legorreta: Edu kooperatiban, 10:15etan.

Itsasondo: 10:45ean.

Ordizia: 10:57ean.

Lazkao: 10:57ean.

Beasain: 11:39ean.

Olaberria: 12:04ean.

Idiazabal: 12:22ean.

Segura: 12:46ean.

Mutiloa: 12:58ean.

Lierni: 13:10ean.

Ormaiztegi: 13:28ean.

Beasain: 13:40ean.

Matximenta: 14:58ean.

Lazkao: 22:00etan, musika kontzertua Dorrao tabernan: Andoaingo Gaizkine taldea eta Zarauzko La Gueto taldea.

Ordizia: Jaialdia: 17:00etan, marrazki lehiaketa eta malabareen ikastaroa; 19:00etan, ekitaldia, bertsolariak, dantzariak, talogileak...

Martxoak 28, asteazkena:

Zaldibia: 19:00etan, Kultur etxean, Joxe Ramon Agirre 'Marron'-en 'Pirinioak harmonian' diaporama.

Martxoak 29, osteguna:

Beasain: 'Pirinioak harmonian' Udaletxeko Batzar aretoan, 19:30ean.

Lazkao: Tesina tragikokomikoa antzerkia eta testuen irakurketa, 21:30ean, Gerriko tabernan.

Itsasondo: 17:00etan, umeentzako pelikula emanaldia, gimnasioan.

Martxoak 30, ostirala:

Beasain: 17:00etan umeentzako tailerrak eta txokolate jana.; 20:00etan, elkartearen arteko sukaldaritza lehiaketa eta 21:30ean, eskualdeko afaria, plaza azpian.

Martxoak 31, larunbata:

Itsasondo: 16:30ean, pailazopak plazan.

Idiazabal: 17:30ean, Korrika kalejira. Herriko gune bakoitzean ekintzatxo bat egingo da: bertsolariak, dantzariak, kantariak... Ondoren, ekitaldia eta merienda.

Ormaiztegi: 16:30ean, ume jolasak plazan eta Mus txapelketa.

Apirilak 2, astelehena:

Segura: 17:00etan, plazan, buruhandiak eta txokolate jana. 19:00etan, diaporama emanaldia, Kultur etxean.

Elorri Kultur Elkartek antolatuta, Baxe Nafarroa izango da protagonista Iparra-Hegoa astea Seguran

par Euskal Herria gehiago ezagutzeko, ulertzeko, gerturatzeko eta batzeko helburuarekin hasi zen antolatzen Seguran Elorri Kultur Elkartea VI. Iparra-Hegoa kultur ekitaldia. Aurten Baxe Nafarroa lurraldea izango da protagonista eta asteen zehar izango diren hitzaldietan bera izango da gai nagusia. Asteburuan izango dira ekitaldi nagusienak eta karpa jarriko dute herriko plazan, eguraldiaren beldur.

Iparra-Hegoa astearen antolatzailerak Segurako Elorri Kultur Elkartea eta Iparraldeko hainbat lagun badira ere, laguntzaileak asko dira: herriko tabernariak, Segura, Mutiloa eta Zeraingo udalak, Goierriko sagardotegiak, Zerain eta Mutiloako ostatuak, Gipuzkoako Kutxa, Euskadiko Kutxa, Irulegi Irratia eta Segura Irratia.

Martxoaren 26tik apirilaren 1era, egunero izango dira ekitaldiak Seguran. Irulegiko eta Segurako irratiek ere, asteen zehar saio bereziak egingo dituzte. Baxe Nafarroari eskainiko diete astea aurten segurarrek. Iaz Zuberoari eskaini zioten.

Martxoak 26, astelehena:

- Baxe Nafarroaren aurkezpena, Manex Goienetxeren eskutik, 19:30ean, Kultur etxean.

Martxoak 27, asteartea:

- Hitzaldi-dastaketa, 19:30ean, Kultur etxean: Baxe Nafarroako ekonomia eta bizi-bidea. Nekazaritza biologikoa, transgenikoak... sagardo produkzioaren berpiztea iparraldean, Eztigar kooperatiba. Hizlariak, Jon Harluxet, Pantxika Maitia.

Martxoak 28, asteazkena:

- 18:00etan: Sukaldaritza

ikastaroa, Iparraldeko ohiko jakien prestaketa.

- 19:30ean: Demoak: Zer diren, helburuak, estrategiak, eskuagiriak, bideoa, pegatina-autokolanta, eta abar.

Martxoak 29, osteguna:

- Xalbador bertsolariari buruzko emanaldia. Hizlaria eta bertsotan: Mixel Aire 'Xalbador II', Xalbador zenaren semea eta Jean Louis Laka. 19:30ean Kultur etxean.

Martxoak 30, ostirala:

- Haurren egun pasa: Garaziko ikastola eta Segurako Herri eskola elkarrekin. Arratsaldean haurrentzako festa: Porrotx pailazoa, jokoak, buruhandiak, txokolatea, Txanmagoa.

- Eraikuntza Nazionala: Nola ikusten du talde bakoitzak. Hizlariak: Anje Sainte Marie (AB), Martin Aranburu (EA), Arnaldo Otegi (EH) eta Markel Olano (EAJ). Moderatzailea Menane Oxandabaratz. 19:30ean, Kultur etxean.

- Kantaldia, karpa barruan, 23:00etan: Erramun Martikorena eta Jojo eta Ramuntxo.

Martxoak 31, larunbata:

- Goizean, margolarien lehiaketa, haurren tailerra, mutxikoen dantza ikastaroa txapitoan eta Kukuxtu txaranga.

- Arratsaldean, futbito eta pilota partidak, Iparraldekoak



Jendaurreko III. Margo sariketa

Martxoaren 31n izango da jendaurreko III. Margo sariketa. Edonork har dezake parte eta gai Segura herria izango da. Lanaren alde luzeenak metro bat neurtuko du gehienez. Teknikari dagokionez, librea izango da. Sariak: 50.000 pta, 35.000 eta 20.000. 10.000 pezetako akzesita ere egongo da Euskarriak sariketa egunean goizeko 9etatik 11ak bitartean Kultur Etxean markatuak izan beharko dute. Lanen aurkezpena, leku berean egin beharko da, 13:00etatik 14:00etara.

Erakusketak

Hiru erakusketa izango dira ikusgai Seguran egunotan. Kultur etxean, Lekunberriko Patxi Laskarainen argazkien erakusketa izango da. Elorri tabernan, berriz, Donapaleuko Pantxo Teilagorriren afitxa erakusketa. Asteburu honetan hasita, zuhaitz eta zuhaixken erakusketa Jaxinto Antxermonean.

Hegoaldekoan aurka. Frontoi zaharrean edo estalian, eguraldiaren arabera. Iluntzean, taloak eta Irulegiko ardoa. Kukuxtu txaranga.

- 23:00etan: Eztanda taldearen kontzertua.

Apirilak 1, igandea:

- Kriseilu txistulariak eta Baigorriko gaiteroak.

- Azoka, 11:00etatik aurrera: Iparraldeko, Segurako eta inguruko produktuekin eta artesauekin. Herri Urrats, Kilo-metroak eta Korrikako materiala salgai. Sukaldaritza lehiaketa. Txakolin dastaketa. Astoa haurrak paseatzen.

- 12:00etan: Motozerraz

egurrezko irudiak egiten, Lekunberriko gazte talde bat.

- 12:45ean: Baigorriko koral plazan.

- 13:00etan: Garaztarak dantza taldea.

- 14:00etan: Kerizondoaren inguruko ekitaldia (dantza, bertso...)

- 14:00etan: Herri bazkaria. Bukaera txaranga lagunduta, kantu saioa.

- Arratsaldean: Egin diren joko-sariketa ezberdinetako eta sukaldaritza lehiaketako sari banaketa.

- Iparra-Hegoa agurtzekoherri dantza: Mutxikoak plazan.

Udaberriko lore eta landareen azoka Seguran, martxoaren 25ean

gandean, martxoak 25, udaberriko lore eta landare azoka izango da Seguran, Udalaren ekimenez, herritarrek antolatuta. Baratza, lorategi, etxe eta balkoiak apaindu eta osatuko dituzten landareak eskuratzeko aukera paregabea izango da. Bide batez, Segurako Ertaroko hiribilduaz gozatzeko parada ere bai.



Azoka antolatzeko herritar ugari elkartu da.

Herria dinamizatzen hasteko asmoarekin, eta Segura Ertaroko hiribildua izaki, egoki ikusi dute segurarrak lora eta landareen azoka antolatzea. Udalaren ekimena izan bada ere, herritarrek antolatu dute eguna. Gustura hartu dute segurarrak eta azokarekin batera, beste hainbat ekintza osagarri antolatu da. Lehenengo azoka eman diote izena, eta horrek jarraipena izango duela esan nahi du.

Horrelako azoka egiteko datarik egokiena ote den ez daude ziur segurarrak, eta datorren urterako aztertuko dute berriz ere dataren gaia. *"Landare batzuentzako azkarregi da eta beste batzuentzako beranduegi"*, esan digu Jakoba Errekondok.

Landareetan aukera zabala

Goizez izango da azoka, 11etan hasita. Baratzeko landareak, etxe barrurako landareak, balkoirako loreak, lorategirako lore eta landare-

ak eta frutarbolak izango dira ikusgai eta eskuragai, herriko plazan. Honez gain, Erdiko kalean, Segura bertako eta inguruko herrietako artisautza eta kalitatezko baserriko produktuak egongo dira ikusgai eta erosgai.

Hau guztia, Segurako Ertaroko hiribilduan murgildurik. Segurarrak turismoaren aldeko apustua egina daukate eta azoka aprobetxatu nahi dute kanpotarrei herriko ondarea eta aberastasuna erakusteko. Bisita gidatuak izango dira egun osoan zehar, herriko gazteek gidaturik.

Ekintza osagarriak

Azoka herriko eta ingurueta-ko txistulari, trikitilari eta musikariak alaitu eta girotu-ko dute.

Ekitaldi berezia prestatu da, eguerdiko 1,30etara. Segurako kanpai-hotsen kontzertua eskainiko du Laureano Telleria herritarrek. Kanpaiak jotzeko 14 era desber-

din (sua, agonia, hileta, etab.) entzuteko aukera izan-

go da. Esku programa prestatu da kanpai hotsen esanahia eta ezaugarriak zehaztuz. (29. orrialdean duzue bere edukia). Garai bateko komunikazio tresna zen kanpaien soinua berreskuratuko dute segurarrak.

Arratsalde partean, dantzariak, erromeria eta buruhandiak izango dira.

Egun osoan zehar, zuhaitz eta zuhaixken erakusketa ere ikusgai egongo da. Bertan, Goierri inguruko landareak biltzen dira, bakoitzaren ize-nak, erabilera desberdinak eta abar zehaztuz.



Egitaraua

11:00etan: Azokaren irekiera. Baratzeko landareak, etxe barrurako landareak, balkoirako loreak, lorategirako lore eta landareak eta frutarbolak. Artisautza eta baserriko produktuak ere bai.

13:30ean: Eliz dorreko kanpaien hizkuntza.

Goiz guztian zehar: Segurako ertaroko hiribildua ezagutzeko bisita gidatuak, zuhaitz eta zuhaixken erakusketa, txistulariak, trikitilariak eta musikariak.

17:00etan: Herriko dantzarien ikuskizuna plazan eta erromeria.

18:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

2001eko Martxoak 25 Segura

Lore eta landareen udaberriko I. azoka

Eliz-kanpaien



hizkuntza

Egitaraua

10etan

Txistulari eta trikitilariak herriko kaleetan zehar

11etan

Azokaren irekiera ofiziala

12etan

Bixita gidatuak herrian zehar

13etan

Herriko koru, txistulari eta trikitilarien emanaldia plazan

13:30etan

Eliz-kanpaien hizkuntza

17etan

Herriko dantzarien ikuskizuna plazan

Erromeria

18etan

Buru Haundi eta Erraldoiak

OLABERRIAN ETXEBIZITZA BIFAMILIARRAK



sarrera, sukaldea, egongela, 3 bainugela, 3 logela, 2 terraza, balkoia, garajea eta lur saila

ERAIKUNTZA ETA SALMENTA:

LANTEGUI S.A.

Tefnoa:

943 69 39 02



36.an fusilatu zuten Valentzian Justa Maiza Goikoetxea beatifikatua Erroman

Justa Maiza Goikoetxea ataundar lekaimea beatifikatua izan zen Erroman joan den igandean. 30.000 pertsona bildu zituen ospakizunean, lekaime ataundarra beatifikatu zuen Juan Pablo II aita santuak, ordena bereko beste 23 karmeldarrekin batera, zeinetatik 8 euskaldunak baitziren.

Justa Maiza Goikoetxea San Gregorioko Iparragirre baserrian jaio zen 1897.eko uztailaren 13an. 5 senideko familian jaioa, umezurtz gelditu zen oso gaztetan. 23 urterekin Gasteizko Karidadeko Karmeliten Elkargoan sartu zen. Valentzia izan zuen bere lehen eta halabe-

harrez, azken destinoa. 1936.eko uztailaren kartzelaratu egin baitzituzten eta, urte bereko azaroaren 24an, Valentziako Picadero de Paternan afusilatu zituzten. Bere bizitzako 16 urte eskeini zituen ezindu eta behartsuei laguntzen Valenciako miseri-kordi etxean. Dirudienez, oso eskuzabala eta edozertan laguntzeko prest zegoen

emakumea zen Justa, baina bere lana oharkabea eta ixilpean burutzea nahiago omen zuen, bere apaltasunaren ezaugarri.

Haren omenez eta esker-rak eman nahian, datorren apirilaren 22an, igandea, Gipuzkoako gotzaia den Juan Mari Urritek, elizkizuna ospatuko du San Gregorioko parrokian.

Bertso-saioa

Martxoaren 24an, larunbata, gaueko 10,30etan Herri Antzokian bertso saioa izango da. Txapelketa nagusirako Gipuzkoako sailkapen saio honetan Alaitz Sarasola, Joseba Barandiaran, Aitor Usandizaga, Alfontso Jimenez, Leire Ostolaza, Ibon Karrera, Beñat Lizaso eta Arkaitz Zelaia ariko dira bertsoetan.

Ordutegi berria garraio zerbitzuan

Apirilaren 1etik aurrera Goierrialdea garraio zerbitzuak ordutegian zenbait aldaketa egingo ditu. Aldaketa hauen xehetasunen berri, etxetara bidaliko zaigun txostenaren bidez emango digu Udalak. Bestalde, geltokietan ere jarriko dira ordutegi berriak.

Doluminak sendiari

Joan den astean zendu bait en Ramon Erauskin Etxeberria, 65 urte zituelarik.

Oharra: Eskerrak eman nahi nizkioke Joxe Ramon Munduateri. Harek bildutako informazioaz baliatuz idatzi baitut kronika hau.

Agurtzane Bikuña

Boni-etxe

igeltseritza orokorra



☎ 616 921 502 ☎

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN



*'Lazkao-Txiki bizi-bizi eta
euskara korrika!'*

Kulturaldia martxoaren 29tik apirilaren 7ra

Lazkaoko Udalak, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkar-
teak eta Maizpide Euskalte-
giak kulturaldia antolatu dute
martxoaren 29a eta apirilaren
7a artean.

Martxoak 29, osteguna:

Goizean zehar: 'Antzarren
XI. bertso-papere' banake-
ta, ikastolan.

16:30ean: Haurrentzat jola-
sak eta Korrika txikia, pla-
zan.

Martxoak 31, larunbata:

9:30ean: Mendi-irteera Laz-
kaomendira: baserrien ize-
nak ezagutu eta Abalin base-
rriko 'museotxora' bisita. Ir-
teera plazatik izango da.

Apirilak 1, igandea:

13:00etan: Lazkao-Txiki
gogoan: lore eskaintza, au-
rreskua, txalaparta, bertsoak
eta salda, Lakao-Txiki ze-
laian.

Apirilak 2, astelehena:

11:00etan: Korrika Lazka-
on! Herrian zehar.

Apirilak 3, asteartea:

21:00etan: Kontzertua: 'Eu-
nate', Pello Ramirez eta Jo-
setxo Goia-Arriben, Maizpi-
den.

Apirilak 4, asteazkena:

14:30ean: Bat-bateko betso-
saioa eskainiko dute Goierri-
ko Bertso Eskolako bertsola-
riek, San Benito ikastolan.

19:00etan: Hitzaldia: 'Eus-
kararen sendabelarrak', Kol-
do Zuazo hizkuntzalariak,
Kultur Etxean.

Apirilak 5, osteguna:

14:30ean: L.H.-ko 6. maila-
ko ikasleen jaialdia, Maizpi-
den.

17:00etan: San Prudentzio-
tako eranskailuaren aurkez-
pena, Gerriko liburudenda-
ren aurreko aldean.

19:00etan: Hitzaldia. 'Zer
da hipertentsioa? Tratatu
egin behar ote dugu?', Kar-
mele Benito del Valle, Kul-
tur Etxean.

Apirilak 6, ostirala:

20:00etan: Irene Hurtado
Mendietak, 'Goierriko eta
Tolosalde Hegoaldeko hizke-
rak' liburua aurkeztuko du
Udaletxeko areto nagusian.

Apirilak 7, larunbata:

21:00etan: Txiste afaria. Jon
Agirre eta Joanito Mendiza-
bal txiste kontalari, Lazkao-
mendiko Lartxai Elkartean.



Diapositiba emanaldia: 'Munduari itzulia 17 urtetan'

Aurreko ostiralean, Joxe Ra-
mon Agirrerren eskutik "Piri-
neoak harmonian" izeneko
ikus-entzunezkoa izan ge-
nuen kultur-etxean.


Gehienetan urrutiko lu-
rraldetako kontu edo ohitu-
rak ikusten ohituak bagaude
ere Joxe Ramonek lan hone-
kin erakusten du bertan edo
hemen inguruan ere lan ede-

rrak egin daitezkeela.

Hilaren 30ean beste ikus-
entzunezko bat ikusteko au-
kera izango dugu, oraingo
honetan "Munduari itzulia

17 urtetan", bertan Honda-
rrabiko familia batek bela
untzian eginiko bidaia luze
honetako hainbat gorabehera
eta pasadizo azalduko dizki-
gu.

Mari Flor Mendizabal



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Badator Korrika

Apirilaren 2an, eguerdiko 12,22etan, iritsiko da Korrikaren 12. edizioa Idiazabala. Euskararen aldeko ekitaldiak, ordea, aurretik hasiko dira herrian. Asteburu hone-tan Mus txapelketa azkarra izango da eta martxoko azkeneko larunbatean Korrika txikia.

Idiazabalgo Korrika batzordeak antolatutako Mus txapelketa azkarra, larunbat honetan (martxoak 24) jokatu-tuko da Mujika jatetxean. Arratsaldeko 3,30ak baino lehen eman beharko dute ize-na bikoteek. Bikoteko 3.000 pezeta ordaindu beharko da. Saritan, ondokoa banatuko da: lehendabiziko bikoteari, inskripzioaren % 40 eta Mu-jika tabernaren saria; bigarrenari, diruaren %20 eta Xa-loa kafetegiak emandako sa-ria; hirugarrenari, jasotakoaren %10 eta Batzokiaren sa-ria; laugarren bikoteak, bil-dutako diruaren %5 eta Odei tabernak emandako saria ja-soko du.

Ekitaldi nagusiak, mar-txoko azkeneko asteburuan egingo dira. Martxoaren 30ean (ostirala) arratsaldean, haurrentzako jokoak eta me-rienda izango dira. Larunba-tean (hilak 31) Korrika Kale-jira egingo da. Arratsaldeko 5,30etan plazatik abiatuta, herriko auzoetan barrena egingo dira ekitaldiak. Pila-rreanean, Adarra auzoan, Gu-rutze Berri auzoan eta Zigo-rran egingo ditu geldialdiak

kalejira horrek. Bertsolariak, dantzariak, eta musika ikusi eta entzuteko modua izango da. Ondoren plazan eginda-ko ekitaldiarekin bukatuko da Korrika kalejira.

Idiazabalgo Korrika batzordeak, asteburuko ekital-dietan eta asteleheneko Ko-rrikan parte hartzeko deia egin du.



Urrezko ezteiak

Martxoaren 31n bete-ko dira 50 urte Cons-tantino Langarika eta Maria Telleria, Muti-lon ezkondu zirela. Konstantino, Brinko-lakoa da jaiotzez eta Maria, Mutilokoa. Le-gazpitik etorri ziren, Idiazabala bizitzera. Martxoaren 31n ospa-tuko dute urteurrena familiakoekin. Zorio-nak.

Elkarte berria

Herrian soziedade berria eratu nahi dute. Pilarrenea eta Mu-jika bitartean egin berri duten eraikinaren behekaldeko loka-letan zabaldu nahi dute egoitza berria. Une honetan, lokala erosi eta guztia martxan jarri ahal izateko aurrekontuak egi-ten ari dira. Bazkide izan nahi dutenek edo informazio gehiagorako, deitu 626310578 telefonora.

Eguneko Zentrua

Eguneko zentruan orain arte aritu den taldeak segiko du au-rerantzean bertako lanak betetzen. Udalak lehiaketa publi-kora atera du zerbitzu hori. Herriko taldeek zuten bakarrik lehiaketara aurkezteko modua. Eguneko zentrua zabaldu au-rretik, herrian talde gehiago hango zerbitzuak eskuratu nahian ibili zen arren, oraingo deialdira bakarria aurkeztu da. Sei hilabeterako kontratua egin die udalak. Ondoren luzatze-ko aukera izango dute.

Mendi Elkarte

Herriko mendi taldea indartu eta haren jarduna bultzatzeko bileren ondotik, igande honetan egingo dute lehendabiziko ibilaldia. Egun osorako irteera antolatu dute, Urdaibai ingu-rura. Goizean Elantxobe inguruko mendietan ibilaldia egingo dute. Arratsaldean, itsasontzia hartu eta Urdaibain barrena, Mundakako inguruak bisitatuko dituzte.

Bertsolariak

Iñaki Apalategi beasaindarrak eta Markinako Gorka Ostola-zak lortu zuten Gabirian jokatu den XXX. Osinalde Bertso Sarietarako txartela martxoaren 10ean Axari elkartearen egin-dako saioan. Entzuleen gustorako, Iñaki Apalategi aritu zen hobekien Idiazabalgo saioan.

Repsolen bulegoa

Herrian gasa zabaltzeko egi-ten ari diren lanak bukatu bi-tartean, Repsol konpainiak bulegoa jarriko du Pilarrene-an. Aurreko ostegunean ireki zen bulegoa. Astean bitan egongo da herritarrentzat za-balik, asteartetan, eguerdian 12etatik ordubata t'erdietara, ostegunetan, berri-z, arratsal-deko 6etatik 8etara. Gasa etxeetara iristeko egiten ari diren lanari buruzko xeheta-sun guztiak bertan azalduko zaizkie herritarrei. Udaletik jakinarazi dutenez, gai horri buruzko galderak dituenak Pilarreneako bulegora joatea du hoberena.

Gas bide berria egiteko la-nak aprobetxatuz, Udala zuntz edo fibra optikoa he-rrian zabaldu ahal izateko az-piegitura jartzea aztertzen ari da. Euskaltekin hartuema-netan jarri da Udala, gasa ba-natzeko sartuko diren hodie-kin batera, etorkizunean zuntz optikoa jartzeko, zein azpiegitura behar den azter-tzeko.


Xabier Urteaga



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak





Edukiz beteta dator kultur astea

Urteroko zitari hutsik egin gabe, aurtengo kultur astea datorren martxoaren 31n hasita izango dugu, apirilaren 8ra arte zer ikusia eta ikasia eskainiz. Mota askotako emankizunak prestatu dituzte Udaleko Kultura Batzordeko kideek, ahalik eta jende gehienarengana iristeko eta parte hartzea bultzatzeko. Hona prestatu den egitaraua:

Martxoak 31, larunbata: Herri Eskolako haurren antzerki emanaldia; arratsaldeko 5etan elizako antzokian.

Apirilak 1, igandea: Gabiriako gazteen musika kontzertua; arratsaldeko 5etan elizako antzokian.

Apirilak 2, astelehena: "Sahara azkeneko 25 urteetan" izenburupean hitzaldia eta diapositiba emanaldia, Gurutze Irizarren eskutik. Kultur etxean arratsaldeko 8etan.

Apirilak 3, asteartea: lore eta landareei buruz hitzaldia, gaitzak, zaintzeko teknikak, e.a. jorratuz, Nere Urrutiaren eskutik. Kultur etxean arratsaldeko 4,30etan.

Apirilak 4, asteazkena: Mikel Dorronsororen mimo ikuskitzuna. Kultur etxean, arratsaldeko 6etan.

deko 6etan.

Apirilak 5, osteguna: mendiari buruzko filminak, Jose Ramon Agirreren eskutik. Kultur etxean arratsaldeko 8etan.

Apirilak 6, ostirala: Juan Mari Beltranen musika emanaldia eta hitzaldia, euskal musika tresnekin. Gaueko 9,30etan elizako antzokian.

Apirilak 7, larunbata: arratsaldeko 5etan hasita II. Gazte-txoen Pelota Txapelketako finalak, pelotalekuan.

Gauean XXX. Osinalde Bertso Sariaketa. Afaria 9etan izango da, Osinalde Elkartean, eta bertso saioa ondoren.

Apirilak 8, igandea: goizeko 11etan Meza Nagusia. Ondoren dantzari txikien saioa. Zumarragako Irrintzi, Lazkako Oin-arin, Ordiziko Jakintza eta bertako Goruntz taldeak izango dira partaide, guztiak batera eta bakarka dantzan.

Arratsaldeko 5etan antzerkia saloian. Larrikun talde azpeitiarrak "Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin" lana taularatuko du.

Aimar Maiz

Mus txapelketa

Bihar larunbata, martxoak 24, izango da Osinalde Elkarteko mus txapelketa, gaueko 9etatik aurrera. Parte hartzeko baldintzen artean, bikoteko batek behintzat gabiriarra izan behar duela aipatzen da arauetan, eta jokoa hiru ustel eta zortzi erregetara izango da. Lehenengo lau bikoteentzat sari bikainak jarri dituzte, diru eta jenerotan.

Argazki lehiaketa

Kultur astearen inguruan antolatzen den lehiaketa honek "Gabiria" izango du gaitzat, beronekin zerikusia duen edozer erretratatu eta aurkez daiteke, gutxienez lau eta gehienez sei argazkitan. Hala ere, izaera pertsonalagoa izate aldera argazki batek behintzat herriko pertsonai bat agertu behar du. Lanak Udaletxean utzi behar dira, martxoaren 28a (datorren asteazkena) bitartean, eta sari banaketak apirilaren 1eko musika kontzertuaren baitan izango du leku.

Bertso sariaketa

Ospatuz doaz inguruko herrietako elkarteetan kanporaketak, eta dagoeneko sei bertsolaritatik lau zein izango diren argitu da. Idiazabalgo saioan Iñaki Apalategi beasaindarrak eta Gorka Ostolaza markinarrak lortu zuten Gabiriarako pasea, eta Aztirikoan Itziar Eizagirre hernaniarrak eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarrak.

Hirugarren eta azken finalaurrekoa Ordiziko Argi-berrin izango da, hil honen 31n. Manex Agirre, Ainhoa Agirreazaldegi, Alaitz Sarasola, Iker Zubeldia, Iñaki Gurrutxaga eta Jokin Uranga ariko dira nor baino nor geratzen diren bi postuetako bat eskuratzeko.

Bolatoko emaitzak

Gipuzkoako Erregularitate Txapelketan, seigarren jardunaldia Kortan jokatu zen, martxoaren 11n, eta Pedro Lazkano donostiarrak irabazi zuen (48 birla), Jose Antonio Ugarteburu ezkiotarrarekin desentzate egin ondoren. Bolatokiarentzat egun historikoa zen, bertan jokaturako azken bolate ofiziala izan zen-eta, laster desagertu egingo baita obra batzuen ondorioz.

Bestalde, txapelketa horretako hamargarren jardunaldia Gabiriako udal bolatokian ospatuko da, apirilaren 8an, igandearekin. Izena emateko goizean 9,30etatik 11,30etara eta arratsaldean 4,30etatik 5,30etara.



Goierriko bola txapelketako saioa

Martxoaren 17an, jokatu zen Mutiloan Goierriko txapelketari dagokion tiraldia. Saio honetako lau lehenengoak

honako hauek izan ziren: Jokin Izagirre, Marzelino Agirre, Antonio Alustiza eta J.M. Ugarte.

Hiru lehenengoei 48na bola bota zituzten, hirugarrenak, berriz, 47.

Heriotzak

Oraingo honetan bi heriotzaren berri eman beharrean gaude. Otsailaren 21ean, Errementari azpiko Arrieta

hil zen 87 urterekin eta martxoaren 13an Lierni-garakoa baserriko Patxi Mujika 92 urterekin.

Mikel Goiangeru parrokian egin ziren hileta elizkizunak eta jende ugari bertaratu zen.

Iñaki Ugalde

Udaberri Gazteko ekitaldiak

V. Udaberri Gaztea ospatu-ko da martxoaren 30an hasi eta apirilaren 8a bitarte. Ekitaldi desberdinek osatuko dute gazteei zuzenduriko egitarau hau. Arrakasta gehien dutenak eta urtero errepikatzen direnak, gazteenkana eta makrokontzertua dira, baina hona egunez egun izango ditugun ekitaldiak:

Antzerkia:

- Txalo Produkzioak, 'Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona' lana antzeztuko du Usurbe Antzokian martxoaren 30an 22:15ean. Sarrera 1.000 pezetakoa izango da.

- Hortzmuga taldeak kale antzerkia eskainiko digu 'Primus' lanarekin martxoaren 31an gaueko 12etan Bideluze Plazan.

Gazteenkana:

14 urtetik 29 urte bitarteko gazteei zuzenduriko joku izaerako herri Olinpiada ospatuko da bi asteburutan. Jokoa lau partaideetako talde mistoak izango dira, eta bi lehiaketa paralelo izango dira. Bata ikastetxeei zuzendua, hauek diru-saria izango dute ikasketa bidaietan laguntzeko: 75.000 pezeta lehenengo sailkatuek, 50.000 pezeta bigarrenak eta 25.000 pezeta eramango dute hirugarren sailkatzen direnek. Beste lehiakideak libretik joango



direnak izango dira eta talde honetako irabazleek afaria irabaziko dute. Beste sari berezi bat banatuko dute talde animatuenarentzat.

10 froga izango ditu Gazteenkanak, San Martin Plazan burutuko dira, 15:30etik 19:30era.

Martxoaren 31n, kamikazea, goming-a, bolo erraldoiak, saski-boleia eta karretila frogak izango dituzte.

Apirilaren 7an, titanik, gladiadoreak, motordun skate, sokatira eta bufalo mekanikoa frogak gauditu beharko dituzte.

Makrokontzertua:

Udaberri Gazte honetako azken ekitaldia, apirilaren 7an izango den Makrokontzertua izango da. Etorriko diren taldeak hauek izango dira: Carlos Segarra (Rebeldes), Redhouse (Caiga Quien Caiga), Mal de Ojo eta Sinred. Antzizar kiroldegian izango dira 22:30etatik aurrera. Aipagarria da sarrera dohainekoa izango dela.

Nekane Altuna

Saneamendu lanen 2.fasea martxan

Etxe eta industrietako isurkin likidoak biltzeko estolderia edo hodian eraikuntza faseari eman diote hasiera. 18 hilabetez luzatuko dira eta 1.133 milioiko aurrekontua du. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Ur Partzuergoak finantzatu dituzte eta Construcciones Sobrino S.A.k burutuko du lana.

Europar Komunitateak ingurugiro garbiagoaren inguruan duen araudi berriak egunean egotea behartzen du, eta era honetan, ibaiak garbitzearekin batera, beren fauna, flora eta ingurunea berreskuratzeko asmoa dago.

Kontzientziazioa eta elkarlana eskatzen zaie herritar guztiei, izan ere, lan hauek iratuen duten bitartean guztiok jasan beharko ditugu eragozpenak: zirkulazioaren mozketak eta desbideratzeak, aparkatzeko arazoak, etxeetara, garajeetara, saltokietara iristeko zailtasunak. Eta tarteka, ura, gasa eta elektrizitate mozketak ere izango dira. Izan ere, saneamendu lan hauek aurrera eramateko, 5 eta 7,5 metroko sakonera duten zangak irekiko dituzte. Zangak ireki beharrik gabe, lur azpiko zulaketak egingo dituzte beste leku batzuetan, tankeentzako zuloak eta zulo-sarrerak irekiaz. Zuzenean eragina jasango duten kale eta gunek hauek izango dira; Jose Mari Iturriotz, Jose Mari Arana, Igartza Oleta, Ezkiaga Etorbidea, Zazpituurrieta, Esteban Lasa eta Joan 23.a kaleak eta Bideluze Plaza.

Aurreku eta doinu zaharren dantza lehiaketa

Martxoaren 31an eta apirilaren 1ean, Aurreku eta Doinu Zaharren dantza lehiaketa jokatu da Usurbe Antzokian. Aurtzaka dantza taldeak antolatzen du Udalararen laguntzarekin eta aurtengoa 10. edizioa izango da. Martxoaren 31n, 16:00etan hasiko da eta infantil mailako bi txapelketa burutuko dira. Apirilaren 1ean, goizez jokatu da eta 11etan emango diote hasiera. Gazte mailakoek hartuko dute parte eta bi txapelketa burutuko dira. Euskal Herriko txapelketaren barruko ligaxkaren barruan kokatzen dira Beasaingo bi txapelketa hauek.

Korrika 12

Beasaina, apirilaren 2an, goizeko 11:39ean iritsiko dela dago aurreikusia. Aurrez, martxoaren 30an, afaria egingo da 21:30ean, Loinazko San Martin Plazan. Apirilaren 8an Korrikaren amaierara Baionarako autobusa estatuatik aterako da.

II. Igartza literatur sorkuntzarako bekan saritutako lanen aurkezpena

Xabier Etxeberriaren 'Egun denak ez dira berdin' eta Jasone Osororen 'Korapiloak' proiektuak izan ziren sarituak iaz, eta orain liburuak tajutu ondoren, gaur, martxoaren 23an egingo da lan hauen aurkezpen ekitaldia Udal-bibliotekan 20:00etan.

Esker ona El Salvadorretik

Urtarrilaren 13an El Salvadorren gertatu zen lurrikararen ondoren, sentsibilizaio ekintza batzuei ekin zien Beasaingo kooperante batzuk. Bide batez, dirua biltzeko kontuak ireki zituzten herriko hainbat banketxetan. Jendeak izan duen erantzun ona eskertu nahi dute lerro hauen bidez. Bildu den diru guztia, udalak eta beste zenbait elkartek emandakoarekin batera, ASPS gobernuz kanpoko erakundera bideratuko da.

Herri mailako mus txapelketa azkarra

Zaldibiako Gazte taldeak herriarrek bakarrik parte har dezaketen mus txapelketa azkarra antolatu du larunbat honetarako. Orain arte, zenbait ostiraletan bestelako ekimenak prestatu izan dituzte, batik bat, herriko gazteen arteko harremana eta komunikazioa bultzatzeko, baina deialdi honekin herri osoarengana zuzendu dira. Hala, bihar larunbata, martxoak 24, Zubi Buru elkartearen izango den mus txapelketan parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuete herriarrei. Izena eman nahi duenak 4:00etatik 4:30etara bitarte azaldu beharko du elkartera. Bikoteko 2.000 pezeta izango da eta jokoa lau erregetara. Saria, berriaz, parte hartzaile kopuruaren arabera izango da.

Korrika kulturala

Hil honen 29an abiatuko da Gasteiztik korrikaren hamabigarren edizioa. Euskararen aldeko festa jendetsu eta parte hartzaile hau Baionan amaituko da apirilaren 8an. Aurtan ere ez da Zaldibiatik pasako, baina Goieritik apirilaren 2an igaroko da goizeko 10:30ak aldera, beraz, izango duzue korrika pixkat egiteko aukera.

Hau dela eta, Zaldibian beste zenbait ekimen antolatu dira korrika kulturalaren

egitarauaren barnean:

Marxoaren 23an, gaueko 10etan Kultur etxean Angel Cuerdo Galarragaren "Ganges, Ibai Sakratua" diaporama emanaldia izango da.

Martxoaren 28an, arratsaldeko 7,30etan, Jose Ramon Agirrerren "Pirinioak Armonian" diaporama emanaldia izango da Kultur etxean.



Aforalekua

Martxan dira jada Unanita inguruetan egin asmo den aforalekuaren hasiera lanak. Obra honetan, erreken ur emaria eta kalitatea kontrolatzea ahalbidetzen duten zenbait tresneri ezarriko dira halako etxe txiki batean.

Labur-labur

Perkusio latinoko ikastaroa

Datorren astelehenean, hilak 26, Lerman Nieves irakasle venezolarraren eskutik izango den ikastaroan parte hartzeko interesa dutenentzat bilera bat izango Kultur etxean arratsaldeko 6etan.

Odol-ematea

Gipuzkoa odol gehien ematen duen herrialdeetako bat bada ere, oraindik ere odol gehiagoren premian daude odol-emaleen elkarrekoak. Horregatik, datorren martxoaren 30ean, ostirala, herriar guztiak animatzen zaituzte arratsaldeko 6,30etatik aurrera odola ematera joateko Lardizabal Herri eskolara, bereziki jende gazteari aipamen eginez.

Infantil mailako neskak, bikain

Zaldibiako 12-13 urte bitarteko neska futbolari gazteek eskola arteko Goierriko txapelketa irabazi zioten pasa den larunbatean Ormaiztegi 5-1 irabazi ondoren. Orain, Gipuzkoako txapelketa jokatzeko erronkari eutsi beharko diote. Animo, beraz!



Udaletxeko teilatua

Iragan astean hasi ziren udaletxeko teilatu zaharkituaren berritze lanak. Obra hau ahalik eta modu txukunenean eta ziurrenean egiteko, neurriak hartzea komeni zaigu herriar guztioi, gerora damurik izan ez dadin. Hona hemen teilatuaren irudi bat.

Iñaki Gurrutxaga

Saroi Jauregi

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

IÑAUSTI

KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

Bulgariako enbaxadore anderearen bisita

Gure herrian Vassilka Paplomas, Bulgariako Enbaxadore anderea Madrilen eta Boris Filipov Bulgariako enbaxadako Ekonomi Sailburuaren bisita izan genuen. Aipatu ordezkari Bulgariarrek Goierriko Garapen Agentziaren gonbidapenez etorri ziren Goierri. Gure artera egin zuten bisitaldian burutu zituzten zeregin adierazgarrien artean Irizar lantegia bisitatzea eta Zumalakarregi Museoa "Goierri, astebete eta zerbait gehiago" gida turistikoaren aurkezpenean parte hartzea izan ziren.

Vassilka Paplomas, Enbaxadore Anderea biziki eskertu zuen Goierri etortzeko jaso zuen gonbidapena, aldi berean Euskal Herria eta Bulgariaren artean elkarlana eta harremana sendotzeko lan egiteko prest agertu zen. Erakundeetako agintari eta herrietako ordezkariak ere bere asmo eta nahiekin bat etorri ziren.

Irizarrena bisita

Lehenik eta behin bulegoetako lanen berri jaso zuten, hau da, diseinuak, martxan jarritzea eta kalitateak Irizar lantegian izan duen lehentasuna jakitera eman zien. Jose Antonio Aizpuruk, Irizar mundu mailan ISO 9001 lortu zuen lehen enpresa izan zela adierazi zien, ingurugiroko ISO 14000 eta 1999. urtean Nokia enpresarekin batera FQM ere lortu zituelarik.

Jose Antonio Aizpuruk adierazirikoak adi-adi jarraitu zituzten Bulgariar ordezkariak. Irizar lantegiko ekoizpen prozesuaren nondik norakoak beraienganatu zituzten eran hainbat jakimin sortu zitzaizkien.

Amaieran Irizar lantegiko kideek lantegiko ateak zabalik dituztela jakitera eman zien, Bulgariar ordezkariak ere elkarlanerako eta aurrerantzean harreman berriak izateko nahia agertu zielarik.



Turismo gidaren aurkezpena

Martxoaren 8an goizeko 11etatik aurrera Zumalakarregi Museoa "Goierri, astebete eta zerbait gehiago" gida turistiko praktikokoaren aurkezpena egin zen. Aurkezpenean ohorezko ordezkari izan zen, hain zuzen, egun hauetan Goierri bisitari izan den Vassilka Paplomas,

51. urteko kinto lagunen bilkura

Urtero ohi bezala aurten ere 51. urteko kinto lagunek beraien eguna ospatzeko asmoa dutela jakinarazi digute. Aurtengoan martxoaren 25ean Pasaia San Juanen elkartuko dira, elkarrekin iragandako uneak gogora ekarriz egun paregabea ospatzeko. Eguneko ekitaldiei hasera, goizeko 11,30etan, San Joan Bataiatzailearen parrokiaren hildako kideen alde eskainiko duten Meza Nagusiak emango die. Ondoren 14:00etatik aurrera Txulotxo jatetxean ospatuko duten anaiarteko bazkariaren elkartuko dira.

Aipatu ekitaldietan eta bazkarian parte hartu nahi dutuztenek izena, martxoaren 20 baino lehenago, ondorengo telefonotara deituz, Txulotxo jatetxea (943-52.39.52) edo Florentino Legorburu (943-51.14.38), eman dezazuen eskatzen zai-zue.

Korrikaren inguruko egitaldiak

Korrika, euskararen aldeko ekimena, datorren apirilaren 2an igaroko da gure herritik zehar. Beraren inguruan hainbat ekitaldi ospatzeko asmoa dago ondorioz beraiek prestatu ahal izateko hainbat bilera egin dira. Aipatu antolatetarako datorren bilera astelehenean, martxoak 26, arratsaldeko 20:00etan kultur etxeko aretoan ospatuko dela jakin arazi nahi da. Bilera horretara herritar guztiei dei egiten zaizue bertan parte har dezazuen.

Korrikaren inguruan antolatzea aurreikusita dauden ekitaldien artean martxoaren 31n ospatuko diren haur eta helduentzako jokuak eta apirilaren 2an ospatuko den Korrikaren igarotzea daude.

Ekonomia eta Turismo diputatua, Jon-Mikel Murua Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro diputatua, Nikolas Osinalde Goiekiko turismo zuzendaria, Nekane Goenaga Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura arduraduna eta Iñaki Maiora herriko alkatea izan ziren. Gonbidatu gisara besteak beste hainbat herrietako alkate, zinegotzi, turismo teknikari, turismo arloko pertsona eta kazetari bertaratu ziren.

Aitziber Murua

Bulgariako Enbaxadore anderea Madrilen. Berarekin batera Boris Filipov Bulgariako enbaxadako Ekonomi Sailburua ere bertaratu zen.

Aurkezpen mahaian aipatu enbaxadore anderea, Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Koro Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburordea, Jose Ramon Beloki Gipuzkoako Foru Aldundiko

Korrika jaialdia eta hitzaldia

Marrazki lehiaketa, malabare ikastaroa, txokolatajana, bertsolariak, dantzariak eta talogileak apirilaren 2an pasako den Korrika 12ri ongi etorria egin aurretik. Korrika kulturaren barruan txertaturiko jaialdia berau, larunbat honetan, hilak 24, arratsaldeko 5etatik aurrera Enparantza Nagusian ospatuko dena. Kultur ekintzekin amaitzeko "ofizialtasuna" aitzakitza Mikel Irastorza izango dugu hizlari arratsaldeko 7,30etatik aurrera Barrena kultur etxean.

Ordiziako Korrika Batzordeak antolatuta umeentzako marrazki lehiaketarekin hasiko da aipatu jaialdia. Gaitzat "Korrika" izango dute. Ondoren, gaztetxoek malabare ikastaroa jasoko dute Gazte Asanbladako eskutik. Hau guztia eginda txokolatejana izango da parte harte duten haur eta gazte guztien artean. Haurren txanda amaituta helduxeagoena iritsiko da arratsaldeko 7ak inguruan. Igor Eguren eta Alaitz Sarasola bertsolari ordiziarrek euren dohainak erakusteko parada izango dute. Jakintza eta Urdaneta dantza taldekoek ere euren erakustaldia egingo dute oholtzaren gainean. Eta hau guztia gutxi balitz, Zaldiabiako talogileak hor arituko dira suaren inguruan taloak eginaz. Txorixoa eta txokolatea ere izango da lagungarri.

Korrika kulturaleko ekintzekin amaitzeko hitzaldia antolatu da martxoaren 28rako, asteazkena. Korrika 12ren aldarrikapenetako bat euska-

raren ofizialtasuna izaki, honi buruzko hitzaldia izango da Barrenan arratsaldeko 7:30etatik aurrera. Hizlaria Mikel Irastorza izango da.

Korrika apirilaren 2an pasako da herritik. Goizeko 11ak inguruan Itsasondotik lekukoa hartu eta herrian barrena 3 Km.ko ibilbidea egin ondoren Lazkaori pasako zaio lekukoa.

Erronka zaila errugbian

Errugbi taldeak ligaxkan bigarren postua eskuratu ondoren Ohorezko B Mailara igozteko igoera fasea jokatzeko txartela lortu zuten Ordiziako rugbyariak. Aurkaria Hospitalet kataluniar taldea eta joan-etorriko kanporaketan lehena Trebijanon martxoaren 11n. Emaiza 15-22koa. Dena ez dago galduta, ordea. Asteburuan Katalunia aldera joatekoak dira jokalariai emaitza horri buelta eman eta hurrengo kanporaketara pasatzeko.

Udaltzain postua

Udalak jakitera eman duenez udaltzain postu bat behin behingoz betetzeko deialdia luzatuta dago. Eskera apirilaren 2aren aurretik egin behar dira. Informazioa, baldintzak edota eskabideak jaso nahi izanez gero bulego orokorretara jo behar da.

Extremadurako eguna

Iazko ekimenari jarraiki berriro ere Extremadurako eguna antolatu da martxoaren 25erako. Ekitaldi nagusiak Enparantza Nagusian egingo dira.



IV. Argi Berri saria

Gabiriako Osinalde sarirako baliagarria izango den bertsolari gazteen IV. Argi Berri saria jokatu da datorren martxoaren 31n Bustuntza Auzoko Argi Berri Elkartearen Manex Agirre (Aramaio), Ainhoa Agirreazaldegia (Zarautz), Alaitz Sarasola (Ordizia), Iker Zubeldia (Beasain), Iñaki Gurrutxaga (Orio) eta Jokin Uranga (Azpeitia) arituko dira nor baino nor aipatu egunean ondoren apirilaren 7an Gabirian jokatu den Osinalde sarirako sailkatzeko balioko duten bi txartelak lortu nahian. Hainbat eta hainbat dira bertsolaritza munduan dabilen bertsolari gazteak eta orain lau urte antolatzaileak kanporaketak egin behar izan zituzten. Aurtengo kanporaketak Idiazabal eta Aztirian jokatu dira eta lau bertsolari dira jada finalerako sailkatu direnak. Beste biak Argi Berriko norgehiagokatik aterako dira.

Bertso saioaren aurretik afaria izango da Elkartearen Bertan parte hartu nahi duenak txartelak salgai dauzka Iñaki Tabernan (2.500 pta.).

Gaztetxeak 15 urte

Ordiziako Gazte Asanbladak antolatuta, Gaztetxearen 15. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi izango dira.

Martxoak 23: 20:00etan, txupinazoa; ondoren, poteo herrikoia; 21:30ean, afaria; 23:00etan, kontzertu afrikarra.

Martxoak 24: 9:00etan, mendi irteera; 22:30ean, DJak.

Martxoak 25: 14:00etan, bazkaria; 17:30ean, bizikleta mar-txa; 19:00etan, poteoa trikitixarekin.

Martxoak 26: 18:00etan, futbolin txapelketa eta 19:30ean, Igor Egurenen hitzaldia.

Martxoak 27: 19:00etan, AHTekoen hitzaldia; 21:00etan, afari begetarianoa; ondoren bideo emanaldia eta solasaldia.

Martxoak 28: 21:00etan, erakusketa eta atzerriartasun legearen aurkako mobilizazioa.

Martxoak 29: 18:00etan, porra eta zapo lehiaketa eta segidan txokolatejana.

Martxoak 30: 21:00etan, mozzorro afaria; 23:00etan, ska psicobilly, Akatz eta Peckoks.

Martxoak 31: 11:00etan, Goierriko gazte asanbladen arteko herri kirolak; 14:30ean, bazkaria; 23:00etan, kontzertua: Brigada Criminal eta Nuevo Catecismo Catolico.

Apirilak 1: 14:30ean, bazkaria. Segidan, preso ohiekin solasaldia eta azken txupinazoa.

Aitor Calvillo



Euro astea apirilean

Foru Aldundia, Eusko Jaur-larritza, Merkatal Ganbara, Kutxa eta Zegamako Udalek eginiko hitzarmen baten bidez, apirilaren 2tik 8ra Zegaman Eurotan erosketak egin ahal izango ditugu. Horretarako aste guztian zehar hainbat ekintza antolatu dira Euroaren inguruan. Garbiñe Saizar aditua, Zegamako Udalak horretarako hartutako langilea, aritu da antolakuntza lanetan eta besteak beste herriko denda, taberna, elkarte e.a. ekin egon da aste hau antolatu eta Euro moneta erabiltzen ikas dezagun. Apirilaren 8an, eguedian feri bat egingo da plazan eta herriko elkarteek ere udalak jarritako pintxo eta ardoak banatuko dituzte, pintxo eta ardoa prezio sinboliko batean erosi ahal izango direlarik. Euro kanbioak Udal arkupeetan bertan aldatu ahal izango dira. Bestalde dagoeneko zen-

bait herritarrek bere parte hartzea adierazi digute egingo den azokatxoan eta beste inork parte hartzeko asmorik badu jar zaitez harremanetan 943 801351 deituz (Garbiñe Saizarrekin.)

Egitarau zehatza etxeetara bidaliko zaizue.

Bertso afaria Amezti Elkartean

Aurten III. Bertso Afaria antolatu da bertsolari gazteekin. Aurtengoan Amezti Elkartean izango da datorren apirilaren 6an.

Bertsolariak: Iker Zubeldia, Ekaitz Goikoetxea eta Alaitz Sarasola.

Afaria 2000 pezeta kostatuko da. Izen ematea, udal-etxean edota liburutegian egin beharko da, apirilaren 4 baino lehen.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Aurten ere HABEk Familia Euskaldunetan euskara sendotzeko programa martxan jarria du eta horretarako famili euskaldunak behar dira.

Baldintzak:

- Egonaldia eskaintzen den hilabetean, gutxienez lau kide bizi izatea etxean.

- Kide guztien arteko ohiko komunikazioa euskara izatea

Ordaina: 82.000 pzta pertsona eta hilabeteko.

Izena emateko epea martxoaren 23an bukatuko da. Informazio gehiagorako dei 943 022621 telefonora edo (www.habe.org).

Herri irratian Zegaman entzungai

Datorren larunbatean, martxoak 24, Herri irratian (FM 99.75), goizeko 11:00etatik 12:30etara emango duten programan Zegama izango da entzungai. Bertan Zegama eta Zegaman dauden enpresa, jatetxe, elkarte eta abarrek jendeak hitzegingo duelarik, hala nola Zegamako Alkateak ere herritarrek eginiko galderei ere erantzungo die.

Zegamako Ostatua

Zegamako Ostatuaren hustiaketako baldintzen plegua 2001eko martxoaren 5ean G.A.Oan. argitaratu zen eta eskabideak sartzeko azken eguna 2001eko apirilaren 2an bukatzen da.

Informazio gehiago Udal Bulegoetan.

Edurne Albizu

RUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

Domingo Unanue plaza, 2 behe
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

Otsailetik aurrera
ordutegi berria:
9:00etatik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEA

Urteko ohiko batzarra

Martxoaren 30ean

arratsaldeko 7etan

GOIERRITARRAren egoitzan

Goierri Bus

Segurtasun eta kalitatezko
zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50

Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak

19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak

Literadunak komunarekin



EZKONGAIENTZAT ESKAINTZA

3 ile bildu eta bukaera
3 makilaje eta bukaera
Frantziar manikura
Solarium bonoa

33.000 pta.

ILEAPAINDEGIA

ezkontza eta jaunartzeak

PIERCING

TATTOO

AZKAZALEN TATUAGEA

MAKILAJE, DEPILAZIO ETA MANIKURAK

SOLARIUMA

AINEA



BANKUA

WASCONIA

UDALETXEA

B. SANTANDER

POPULAR

B. VITORIA

Kale Nagusia 40 (tarteko oina)
BEASAIN Tel.: 943 88 91 44

RENFE

JAUNARTZEAK

Aurretik proba eta
eguneko orrazkera
6.500 pta 'oparia'

BUS

PERGOLAK

Zure esku

norekin hitz egin luze eta labor ordaindu

Movistar Activa ohiko zenbakiak

Aukeratu zuk deitarako Movistar Activa 5 zenbaki, eta/edo mezu idatzietarako beste 5 (zenbaki berak edo beste batzuk izan daitezke) eta tarifarik merkeena izango duzu, ordutegi mugarik gabe gainera:

Deiak

15 ppta./min

(+20ppta. deia ezartzean)

Mezuak

15 ppta./mezuak

hileko kuota gabe

Promozioa

apilarraren 17a baino lehen ematen baduzu
alta*, haxe besterik ez duzu ordainduko:

10 ppta.

etor zaitez movitel2000ra. Zerbitzu horretan
bertan emango dizugu alta

movitel2000
Mugikortasun digitaleko zentroak

Toribio Alzaga - (ARCCO parean) - DONOSTIA - Tel.: 943/46 09 63
Oriamendi-Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN - Tel.: 943/80 50 89
Irunlarrea, 6 (Barañain Hirib. izkinan) IRUÑEA - Tel.: 948/19 70 72

www.movitel.com - movitel2000@movitel.com

Banatzailerik Ofiziala:

Telefonica
Movistar

*Baldintzak kontsultatu
2007eko apilarraren 17a arte balio duen eskaintza.

Odol emaileen bazkaria

Igande honetan, martxoak 25, izango da Odol emaileen elkartek antolatutako bazkaria. 12:00etan hildako odol emaileen aldeko meza izango dute eta 14:00etan bazkaria Zopajale elkartearen. Menua: arrain zopa, arkumea saltsan eta ijito besoa. Ondoren zenbait opari zozketatuko dira.

Gazteak erakartzeko kanpaina

Apirilaren 7an izango da hurrengo odol emanaldia. Azkenaldian odol emaileen kopurua jaitsi egin dela eta (jende berriak azaldu ez eta 65 urte betetakoak jubilatuta), etxeko kanpaina informatiboa egingo dute, 18 urtetik gorakoak odola ematera animatu asmoz. Orain dela urte batzuk 60 odol emaile agertzen baziren, gaur egun 35-40ren bat azaltzen dira.

Preso eta iheslariak

Preso eta iheslari taldeak zenbait ekintza antolatu ditu Iparra-Hegoaren barne:

- Martxoaren 23an, iheslari politikoen egoerari buruzko hitzaldia. 'Mubutu' De Lacalleri buruzko bideo emanaldia. 19:30etan Kultur etxean.

- Martxoaren 25ean: Konzentrazioa, 13:00etan plazan. 'Prozesu demokratikoaren alde, EHK amnistia behar du' lelopean. Amnistiaren aldeko materiala salgai.

- Martxoaren 31n. Iluntzean 'Kuxkuxtu' txarangak lagunduta Olatz Idoate preso ohiak bere argazkia kenduko du Elorripetik. Ondoren, eskualdeko manifestazioa plazatik hasita, 'Prozesu demokratiko baten alde, utzi pakean Euskal Herria' lelopean.

- Apirilaren 1ean, 'Guztion artean, sakabanaketarekin amaitu behar dugu'. Sakabanaketaren zulo iluna elkartar

Ekitaldiz betetako egunak



Orain 2 urteko korrikalariak, Madalenan gora.

Igande honetan, martxoak 25, burutuko den Udaberriko I. lore eta landare azokari (informazio guztia 10. orrialdean) eta odol emaileen bazkariari, hurrengo egunean, martxoak 26, hasiko den Iparra-Hegoa asteak (informazio guztia 9. orrialdean) emango dio jarraipena. Hau bukatu eta hurrengo egunean, berriaz, Korrikaren 12. edizioa pasako da herritik.

sunezko argiz betetzeko aukera.

- Apirilaren 2an, Korrika garaian preso eta iheslariak gogora ekarriko dira.

Kirol eskolarra

Asteburuan etxean:

- **Saskibaloia:** ostiralean, 17:00etan mutil benjaminak, Laiotz-San Benito.

- **Pelota:** Zapatuan, 10:00etan mutil alebinak ataundarren eta ordiziarren kontra.

Bola

- Olaberriako 'Joxe Kereje-

ta' bola saioa irabazi zuen Xepeño Agirrek martxoaren 10ean, 6 bolatan 34 birla jota.

- Goierriko txapelketan, Mutiloan martxoaren 17an Jokin Izagirre eta Martxeliño Agirre geratu ziren lehenak.

- Gipuzkoako txapelketan, martxoaren 18ko Aiako saioaren ondoren, Jokin Izagirre berriro ere sailkapen nagusiko lehen postuan jarri da, 317 birlarekin.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Preferentea:** Oiartzun 2-1 Segura. **Jubenilak:** Segura 1-4

Korrika

Urtarrilaren amaiera aldera, herriko hainbat alderdi eta taldek osatuta sortu zen batzordea, propaganda egiteaz, korrikaren aldeko dirua biltzeaz, materiala saldu eta kuestazioa egiteaz eta egitaraua prestatzeaz arduratu da. Honakoa antolatu dute Korrika pasako den egunerako, apirilaren 2rako:

- 12:45ean Korrikari ongi etorria. Idiazabal aldetik sartuta, herri kaskoan buelta eman eta Mutiloa aldera joko du Korrikaren lekukoak.

- 18:00etan txokolate jana eta trikitilariak plazan.

- 19:00etan Joxe Ramon Agirre 'Marron' en 'Pirinioak harmonian' diapositiba emanaldia kultur etxean.

Momentuz, euskararen lekukoa eramateko kilometroak erosi dituztenak: Zopajale, Txoritegi eta Elorri elkartek, EH, preso taldea eta Elorripe, Udala, Musika eskola eta Segura eta Zegamako eskolak izan dira.

Amara Berri. **Kadeteak:** Zestoa 1-0 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 3-0 Baskonia.

Asteburuan etxean: Zapatuan, 11:00etan Aizkorri-Touring (kadeteak); 17:00etan Segura-Beti Ona (preferentea).

Labur-labur

- **Txirrindularitza:** Agustin Agirre ezezik, Unai Paredes ere arituko da korritzen denboraldi honetan. Unai afizionatuetan arituko da Iberdrola taldean.

- **Imverso oporraldiak:** Adinekoentzako oporraldi programa zabalik dago. Eskatera egiteko edo informazio gehiagorako, udaleko gizarte zerbitzuko departamendura jo behar da, asteazken eta ostiralean 8:30etik 13:30era. Eskerak egiteko epea martxoaren 31n amaituko da.

- **Osakidetza oharra:** Zapatuetako larrialdi zerbitzua Beasaingo anbulategian 9:00etatik 14:00etara egongo da. 14:00etatik aurrera, berriaz, Beasainen bertan, PAC (urjentzia zerbitzuan).

Joseba Telleria



Madalenako makaldia berritxuratua

Madalenako makaldiak itxura berria hartu du egoera txarrean zeuden lizarrondo eta platanoak kendu eta 80 inguru urdareondo landatu ondoren. Orain, ingurua txukundu eta argiteri berria jartzeari ekingo diote.



Lehia handiko mountain bike proba

Kategoria ezberdinetako txirrindularien topagune bilakatu zen Itsasondo martxoaren 11n, bertan egin baitzen Euskadiko Openerako puntuagaria den mountain bike proba. 200dik gora txirrindulari elkartu ziren udaletxe inguruan.

Goizeko 9,30ak inguruan eman zitzaion hasiera juvenil, kadete eta emakumezkoen kategoriako probari. Herriko plazatik abiatu eta Urkiaraino igo behar izan zuten berriro udaletxe aurrean amaitzeko. Kategorien arabera, ibilbidea ere ezberdina izan zen. Hala,

emakume eta kadete mailako txirrindulariek prestaturiko ibilbidean bi bira txiki (Urkiara igo gabe) eta handi bat eman behar izan zioten. Ibilbide luzeena, berriz, elite mailako txirrindulariek egin behar izan zuten. Guztira 5 kilometroko ibilbideari hiru bira handi eta txiki bat egin behar izan zuten.

Aldapaz beteriko ibilbide gogorra izan zen eta lokatza izan zen arerio nagusia. Lokatz ugari zegoen eta batek baino gehiagok oinez egin behar izan zuten ibilbidearen zati handi bat.

Zailtasunak zailtasun, lehia handia izan zen. Jubenil mailan Iñaki Lejarretak gurutzu zuen lehenengo helmuga, 56 minutu 57 segundu behar izan zituen. Orbeako txirrindularia erraz gailendu zen; Ismael Estebanek, 2. postuan, ordubete eta 2 minutu behar izan baitzituen.

Emakumezkoen kasuan Jaione Sasieta, Caravanas Oizatzungo txirrindularia, izan zen azkarrena. Bere atzetik, oso denbora gutxira Nekane Lasa eta Aida Nuñok igaro zuten helmuga.

Elite mailan, berriz, Carlos Coloma izan zen onena (1:26:51). Honen ondotik, minutu gutxira Fernando Eguiluz eta Garikoitz Zapirain helmugaratu ziren.

Zugaitz Ayuso itsasondorak ez zuen zorte onik izan. Ondo hasi bazen ere, erorketa bat izan zuen eta ondorioz, arazoak izan zituen lehen

postuetan sailkatzeko. Azkenean, 16. lekuan geratu zen irabazlearengandik 19 minutu.

Korrika 12

Martxoaren 29an abiatuko da Gasteiztik Korrikaren 12. aldia. Horrela, Korrika kulturaren barruan hainbat ekitaldi antolatu ditu Itsasondoko Korrika Batzordeak. Ekitaldiak gaur gaueko 9,30etan hasiko dira Gaztetxean emango den 'Burumotztaileen uhartea' filmarekin. Martxoaren 29an, berriz, haurren txanda izango da. Arratsaldeko 5etatik aurrera 'Fidel mendebaldekoa' filma ikusteko aukera izango dute gimnasia hurbiltzen diren haur guztiek. Martxoaren 31n, igandean, aldiz, arratsalde dibertigarria igarotzeko aukera izango dute Poxpolo eta Makolo paila-zoekin.

Nagore Etxeberria



Sukaldaritza ikastaroa

Udaleko Kultur Batzordeak sukaldaritza ikastaroa antolatu du 'Bikaintasun ukitu bat' titulupean. Kutxa Gizarte Ekintza eta Bilkoin K.K.E-ren laguntzarekin.

Alazne Zunzunegi legorretarrak (Fronton Jatetxekoa) emana izango da eta asteazkenetan burutuko da arratsaldeko 5etatik 7etera. Bil-

koin elkartean izango da 14 orduko ikastaroa izango da eta apirilaren 4an hasiko da. Ikastaroan zehar sukaldean garatzen, eta era berean, errazago aritzen lagundu dezaketen trikimailu eta teknika oso profesionalak garatuko dira. Abanguardiazko teknologia-ekin landutako jakiak, hala nola, sifoia, silpata, PVCa, mistoa, dosifikatzaileak, bi-

rringailuak... Ikastaroa amaitu ondoren idatzizko dokumentazioa banatuko da.

Ikastaroa mugatua da, hau da, 8 eta 15 lagun arteko taldea osatu nahi da. Izenak emandako ordena zorrotz beteko da. Matrikularen kostua 3.000 pezetakoa da. Udal Bulegoetan izena ematerakoan ordainduko da matrikula. Izena emateko epea martxoaren 28an amaituko da.

Hitzaldi zikloa

Udaleko Kultur Batzordeak eta Ugara Herri ikastetxeak, haurren garapen psikologiko-afektiboari buruzko lan-

ikastaldea osatu du aita eta amen artean. Seme-alabak ezagutu, hezi eta bide batez eurekin gozatzeko bideak aztertzea da helburua, elkarren artean iritziak trukatzuz. Bideak psikologia taldearen laguntza dute.

Martxoaren 8an hasi zen hitzaldi zikloa baina beste bi hitzaldi gelditzen dira amaitu aurretik.

Martxoak 29, 'Zartako bat, belarrondoko bat... Trauma bat?', 17:00etatik 19:00etara, Eskolako liburutegian.

Apirilak 5, 'Nagusia naiz, badakit zer nahi dudana!'



Iñauti
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



Udaberriko moda iritsi da

Udaberri-udako Kilometroak moda ikusgai eta erosgai dago dagoeneko Beasaingo Bideluzeko dendan. Moda-modako jantziei, Kilometroak izaera eman zaie eta denetik izango da, haur, gazte, gizonezko zein emakumezkoentzat. Marijo Beloki zaldibiarra da jantzien arduraduna.

- Zer izango dugu modan?

- Gauza ugari izango dira. Neguko moda gustatu zaie gazteei eta udaberri-udako ildo horretatik joango da. Udan batez ere kamisetak saltzen dira eta kolore ugaritako kamisetak ekarri ditugu. Moda-modako kamisetak ere ekarri ditugu. Kilometroen publizitateaz gain, modan dauden kamisetak. Koloreak ere moda-modakoak, laranjak, urdinak, kakiak, gorriak... Markako kiroletako prakak... Gizonezkoentzat txandal estiloko prakak, kamiseta eta izerditzeko jertse batekin konbinaturik. Mutikoen txandalak, izerditzeko jertseak, sirak, bermudak... Neskentzat izugarrizko aukera izango da. Piratak, gonak, tiradun niakiak, jertseak... Emakumezkoentzat, batez ere koloreak hartu dira kon-tuan. Erraz erabiltzekoak.



Piskanaka-piskanaka joango gara jantziak ekartzen. Aukera ezberdina egonez gero, errazagoa da jendeak gehiago erostea.

- Osagarrietan zer izango da.

- Udako poltsak, kanpazokak... udarago hondartzarako materiala ere ekarriko dugu.

- Askok aldatu da jantzien arloa, gaur egun aukera handia egoten da.

- Kamisetak, izerditzeko jertseak, motxilak... izaten ziren lehen, oso mugatuak. Baina Ikastolak bultzatzeko diru-iturria gehitu beharra dagoenez, iaz Azpeitian ikusi genuen, diru-iturria asko gehitzen dela modako arroparekin. Publizitatea egitea oso garrantzitsua da baita ere arropa saltzea. Diru-iturri

oso garrantzitsua da arroparena, ondo eramanez gero.

- Neguko salmenta zer moduz joan da?

- Balorazioa ona izan da. Jendeari gustatu zaio. Piskanaka arropak ekartzen joaten gara eta ikusten da jendeak moda eskatzen duela.

- Diseinua gustatu al da?

- Jendeari diseinu abstraktua gustatzen zaio eta Kilometroak-ekoa gustatu zaio. Logotipoa garatzen joaten da eta orain beste-logotipo bat aterako dugu.

- Beasaingo dendaz gain, Gipuzkoan herriz herri ere bazabiltzate.

- Denda bakarra daukagu Beasainen. Gustatuko litzaziguke Ordizian ere denda irekitzea baina lokalik ez dugu aurkitzen. Beraz, lerro hauek aprobetxatuz,

Apirilaren 1ean, Maskarada ikustera

Datorren apirilaren 1ean, Zuberoako Altxürükü herrian egingo den Maskarada ikustera joateko autobusa antolatu du Kilometroak 2001ek. Egun pasa joango dira Zuberoara. Martxoaren 28a baino lehen eman behar da izena Kilometroetako bulegoan (943 164177), arratsaldeko 5etatik 7etara.

Bidaia honekin, bide batez, Zuberoan Kilometroak 2001en berri zabaldu nahi da.

dei egingo nuke ea Ordizian norbaitek uzteko edo alokatzeko moduko lokalik ba ote duen. Gipuzkoan irteerak, azoketara, herriko eta mendiko jaietara... egiten ditugu. Fuerteena orain udaberrian dator. Iraila ere fuertea izaten baina ezberdina. Gehienbat kamisetak saltzen dira, publizitatea egiteko, Kilometroekin bat eginez.

Informazio gehiago,
www.kilometroak.com
orrialdean.



Andramendi, Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.
E-posta: beasain@ikastola.net

Tel/fax 943 88 96 17

Sei goierritar arituko dira lehian eta Goierriin 3 saio jokatu dira Txapelketa Nagusirako Gipuzkoako sailkapena jokoan

Datorren udazkenean jokatzekoa den Txapelketa Nagusian parte hartuko duten Gipuzkoakobertsolariak izendatzea da Gipuzkoako sailkapen honen helburua. Martxoaren 16an hasi zen eta maiatzaren 19an amaituko dira. Sei goierritar ariko dira lehian, eta Goierriin hiru saio edo kanporaketa jokatu dira.

1999an Herriarteko Gipuzkoako bertsolari txapelketa jokatu zenez, ez zen Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusirako ordezkarien sailkapenik egin. Beraz, orain, maiatzera bitartean, sailkapeneko saioak jokatu dira. Lehenengo atalean, 18 saiotan 60 bertsolari arituko dira, hemendik 18 pasatuko dira bigarren fasera. Bigarren fasean hauei beste sei gehituko zaizkie, Gipuzkoako txapelketa edo Txapelketa Nagusiren batean finalerdietan inoiz parte hartutakoak dira. 14 txartel daude Txapelketa Nagusirako. Dena den, Euzkitze, Sarasua, Murua, Peñagarikano, Sorozabal eta Lazka-

no seikote honetatik parte hartuko dutenen arabera egongo da aukeraketa.

Sailkapen fase honi amaiera emango dion saioa Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan izango da, maiatzaren 27an. Txapelketa Nagusira Gipuzkoak aurkeztuko duen partehartzaileen erakusleio izatetik kanpo, bertan izango den saio berezia eta ondorengo bazkaria bertsozaleon topaleku, lagunarteko jaialdi izan nahi du.

Bertsozaleak dantzan

Herriarteko Gipuzkoako txapelketan osatu eta sendotu ziren. Txapelketa haren antolaketan ibilitako hainbat talde, kide, epaile eta gaijartzaileez baliatuko dira Sailkapen hau aurrera eramateko. "Gipuzkoako bertso familia berriro dantzan jartzea eskatuko dugu", esan zuen Felix Irazustabarrenak aurkezpenean. 16 lagunek osatuko dute epaimahaia. Gaijartzaile lanean, berriz, 9 lagun arituko dira.

Goikoetxea aurrera


Oñatin jokatu zen saioan, Ekaitz Goikoetxeak bigarren faserako txartela eskuratu zuen.

Goierriin hiru saio

Goierriin izango diren hiru saioetatik lehenengoa, bihar, martxoak 24, gaueko 10,30etan, Ataungo Herri Antzokian, izango da. Alaitz Sarasolarekin batera, Joseba Barandiaran, Aitor Usandizaga, Alfontso Jimenez, Leire Ostolaza, Ibon Karrera, Beñat Lizaso eta Arkaitz Zelaia arituko dira.

Bigarren saioa, Legorretan izango da, Herri Zineman, martxoaren 30ean. Errepeskako saioa izango da eta lehenengo sailkapen saioetatik sailkatutako 6 arituko dira bertan.

Ordizian, maiatzaren 18an, gaueko 10,30etan, Herri Antzokian, izango bigarren faseko azkenengo saioa.



Sei goierritar

Goierriko sei bertsolari arituko dira lehian sailkapeneko fase honetan. Iker Zubeldia eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarak Oñatin aritu ziren martxoaren 16an; Joxe Munduate ataundarra eta Iñaki Apalategi beasaindarra martxoaren 23an, Eibarren dute hitzordua; Alaitz Sarasola ordiziarra, Ataungo saioan izango da, martxoaren 24an. Aitor Sarriegi beasaindarra aurre-sailkaturik dagoenez, bigarren saioan sartuko da lehian.

 **GERTU ABOKATUAK**

- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

 **ZEGAMA OKINDEGIA**

Eskuz egindako ogi naturala

☎ 943 80 10 66
Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabalgo** Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

ZINEA

goieniz

GOIENIZ:

Martxoak 22, 'El camino a casa' 21:00etan, Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

Martxoak 25, 'Un mundo a su medida' 17:00etan, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

'El naufrago'.

Ostirala 23: 22:15

Larunbata 24: 19:30 - 22:15

Igandea 25: 19:30 - 22:15

Astelehena 26: 19:30

'El Grinch'.

Igandea 25: 16:45

'El camino a casa'
Zhang Yimou
(Txina, 1999)

Yusheng bere sorterrira itzuli da, herriko maisua zen bere aitaren hiletara joateko. Denborak aldatu diren arren, amak usadioaren arabera ospatu nahi du hileta. Yushengek txikita-ko oroitzapenen harira guraoen erromantzea gogoratuko du, filma txuri-bel-tzetik koloretara pasatuz. Bere aita, maisu berria, herri-ira iritsi bezain laster Zhao Dik maitemindu egin zuen. Politika arazoak medio bi urte banandurik egon ondoren, ezkondu eta ez ziren sekula elkarrengandik banandu. Yusheng, azkenik, amaren desioak errespetatu behar dituela konturatzen da, eta gainera bere aitaren nahi handiena bete behar duela.

Txina kapitalistari eta belaunaldi berriari buruzko hausnarketa soma dai-teke; eta ez dirudi Yimou oso itxaropentsu dagoenik.

antzerkia

BEASAIN:

Martxoak 30, Txalo Pro-dukzioak taldearen 'Emaztea kapelarekin nahastu zuen gi-zona', Usurbe Antzokian, 22:15ean, Antzerki Garaia programaren barruan.

ORDIZIA:

Martxoak 27, Antzerki es-kola egitarauaren barruan, Gorakada taldearen 'Aitona-ren kontuak' ikuskizuna, Herri Antzokian, 15:00etan.

Martxoak 28, Antzerki es-kola egitarauaren barruan, 'T'Ombigo antzerkiak' taldearen 'Ahots gabeko aitona-ren jaia' ikuskizuna, Herri Antzokian, 11:30ean eta 15:00etan.

Martxoak 29, Antzerki es-kola egitarauaren barruan, 'Mohicano' taldearen 'Txamuskina' ikuskizuna, Herri Antzokian, 11:15ean.

musika

BEASAIN:

Martxoak 30, Trintxerpe-ko orkestra eta txistulariak, Parrokian, 20:00etan.

Apirilak 7, Makrokontzer-tua, Kiroldegian, 22:30ean: Carlos Segarra, Redhouse, Mal de Ojo eta Sinred. Do-hainik.

LAZKAO:

Martxoak 24, Gaizkine eta La Gueto, Dorrao tabernan, 22:00etan.

ORDIZIA:

Martxoak 30, Ska-psico-billy, Akatz eta Peckoks, Gaztetxean, 23:00etan.

Martxoak 31, Brigada cri-minal eta Nuevo Catecismo Catilico, Gaztetxean, 23:00etan.

SEGURA:

Martxoak 30, Erramun Martikorena eta Jojo eta Ramuntxo, karpan, 23:00etan.

URBITARTE

folare
sagardotegia



Txotx denboraldia zabalik

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxe: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

943 88 95 83

LAZKAO

diapositibak

BEASAIN:

Martxoak 23, 'Mendi irte-
erak', Luis Unamunoren es-
kutik, Aizkorri Mendizale
Elkartean, 20:00etan.

bertsoak

ATAUN:

Martxoak 24, Gipuzkoako
bertsolari txapelketako sail-
kapena, Herri Antzokian,
22:30ean.

LEGORRETA:

Martxoak 30, Gipuzkoako
bertsolari txapelketako sail-
kapenerako errepeka saioa,
Herri Antzokian, 22:30ean.

ORDIZIA:

Martxoak 31, Osinalde
bertso sariketako azken kan-
poraketa, Argi Berri elkar-
tean, 20:30ean.

hitzaldiak

LEGORRETA:

Martxoak 29, 'Zartako bat,
belarrondoko bat... trauma
bat?' hitzaldia, Ugare herri
ikastetxeko liburutegian,
17:00etan.

Apirilak 5, 'Nagusia naiz,
badakit zer nahi dudan!' hi-
tzaldia, Ugare herri ikaste-
txeko liburutegian,
17:00etan.

SEGURA:

Martxoak 30, 'Eraikuntza
Nazionala': Anje Sainte Ma-
riea (AB), Martin Aranburu
(EA), Arnaldo Otegi (EH)
eta Markel Olano (EAJ).
19:30ean, Kultur etxean.

mendi irteerak

Beasaingo mendizaleak:
Martxoak 25: Urdaneta-
Pagoeta-Aia.

Elkarriren Bake Konferentziaren aurkezpena Beasainen

Apirilaren 3an, Beasaingo Udaletxeko Batzar aretoan,
19:30ean, Elkarri giza mugimenduak Bake Konferentziaren
aurkezpena egingo du. "Gaur egungo blokeo egoera gain-
ditzeko alternatibak eta aukerak eskainiko dituen Bake Kon-
ferentzia bat antolatzearen inguruan gizarte eta politika
mailako bat-egite dinamika bat bultzatu nahi du" Elkarrik.

erakusketak

BEASAIN:

**Martxoaren 24tik 13ra ar-
te**, Fernando Zubiriren
akrilikoak, Aterpe taber-
nan.

Martxoan zehar, Prentsa
iragarkiak Goierriren erakus-
keta, Zinema tabernan.

ORDIZIA:

Apirilaren 6ra arte, Patxi
txiki artistaren pintura eta
eskultura erakusketa, Ba-
rrenan.

SEGURA:

Ekaina bitartean, Rafa Be-
rasategiren argazki eras-
kusketa, Atsedenen.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Martxoak 10-11: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232

Martxoak 17-19: Lournaga
(Kale Nagusia, 4- Ordizia). 943 881828



Olatz Aranburu
Alaitz Zubizarreta

- BERRABILKETA
- DRENAJE LINFATIKOA
- OSTEOPATIA
- ARNAS APARATUKO ARAZOAK
- MASAIK
- ETXEZ-ETXEKO TRATAMENDUAK

Tel: 943 88 19 64 / 607 73 82 78
Santa Maria, 16
20240 Ordizia (Gipuzkoa)

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095
JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN
ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- ✖ Unibertitate-maila
- ✖ Batxilergoa
- ✖ DBH
- ✖ ...

TAILERRAK

- ✖ Ortografia
- ✖ Irakurmena - idazmena
- ✖ Kalkulua, logika
- ✖ Testu lanketa

ESKOLA LAGUNTZA

- ✖ Maila eta arlo guztietan

Orain ZERBITZU BERRIA:
IRAKASLEA zure ETXEAN!
Informa zaitez!

Etxebizitzak

salgai

➡ Ezkio-Itsason etxe adosatua salgai. 2 solairu (116 m²), garaia, estudioa (63 m²), terraza eta lorategia. 943725914 - 943 037609.

➡ Idiazabalen etxebizitza salgai. 70 m²koa. Berria, ekipatua, 2 logelakoa. 16.500.000 pezeta. 627869700.

➡ Legorretan etxebizitza salgai. Ganbararekin. Dena berritua. 943806404.

➡ Etxebizitza salgai Ikaztegietan. 100 m²koa. 943651353.

➡ Beasainen 90 m²ko etxebizitza eta garaia salgai. Moleztatua eta egutera. 943884744 edo arsuaran@euskalnet.net

➡ Etxebizitza salgai Beasaingo Esteben Lasa kalean. Ganbara txikiarekin. 943027162 943027298 943291554.

errentan

➡ Urbasaren magalean etxea errentan ematen da asteburu eta zubitako. Guztiz ekipatua. 958539381.

Garajeak

salgai

➡ Garajea salgai Beasainen, herri erdian. 943027947. Iluntzetan deitu.

Ibilgailuak

salgai

➡ Opel Kadett autoa salgai. Beltza. Ondo zaindua. SS-AC. Prezio interesgarria. 606061165. (Joseba).

➡ Honda VFR750 motorra salgai. Ondo zaindua. 350.000 pezeta. 943674920. 19:30etik aurrera deitu.

➡ Toyota Camry autoa salgai. Ondo zaindua. 500.000 pezeta. 943883106. 19:30etik aurrera deitu.

➡ Aprilia Racing errepideko motorra salgai. Tabi eskapearekin. 2 kasko, aseguru eta kandadua barne. 943806421.

➡ Yamaha Aerox scooter salgai, gorri-beltza. Egoera onean. Eguerdian deitu. 943884207.

Animaliak

salgai

➡ Lanean dakien euskal artzain txakurra salgai. 943885102.

➡ Urte t'erdiko aharia salgai. 943885102.

Bestelakoak

salgai

➡ Txanpon zaharrak erosi edo aldatuko nituzke. 639822790.

➡ Akordeoia salgai. Borsini, Convertor 3+4 ahots. Basetti, 4 mentonera, 11 erregistro eskuin eskuan, 4 erregistro ezker eskuan, bajo bikoitza. 943884302. Oroitz Maiz.

➡ Kiwi biologikoak salgai, baseritik bertatik salduak. 943161945.

➡ Errepideko Peugeot txirrindua salgai. Erabili gabea eta merke. Gaez deitu. Joseba. 943885547.

➡ Mitsubishi Monteroren llantak salgai. Aluminiozkoak eta 15". Oso gutxi erabiliak. Prezio interesgarria. 639644314.

Lana

eskaerak

➡ Neska bat behar da tabernan zerbitzari lanak egiteko. Derri-gorrezkoa euskaraz hitz egitea. 696681181.

➡ Zaldibian asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Ahal dela esperientziaduna. 943880044.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

OBRAAtako ENKARGATUA
Goierri. Erref. 48090/3

DELINATZAILEA-DIGITALIZAZIO LANA
Tolosaldea. Erref. 48066/3

INFORMATIKAN LIZENTZIATUA
Donostialdean. Erref. 47504/4

TORNULARIA
Tolosan. Erref. 46847/4

**ELEKTROMEKANIKAKO
MANTENIMENDUA**
Nafarroan. Erref. 48121/3

OPERATZAILEA
Urola Garaian. Erref. 48571/3

INKESTATZAILEA
Donostialdean. Erref. 48607/1

KARROZEROA/TXAPISTA
Donostialdean. Erref. 48139/3

INSTALATZAILE ELEKTRIKOA
Urola Garaian. Erref. 48219/2

3 BEGIRALE SOZIO-KULTURAL
Enkarterrietan. Erref. 48106/5

MANTENIMENDUKO ELEKTRIZISTA
Sakanan. Erref. 48293/1

SOLDATZAILEA
Sakanan. Erref. 48297/1

ADMINISTRATIBO LAGUNTZAILEA
Sakanan. Erref. 48292/2

5 SUKALDARI
Lanzaroten. Erref. 48398/1

PARTIDAKO 3 ARDURADUN
Lanzaroten. Erref. 48293/1

SUKALDEKO BOST LAGUNTZAILE
Lanzaroten. Erref. 48422/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

*Segurako elizan,
martxoaren 25ean, 13:30ean*

Eliz dorreko kanpaien hizkuntza, mezua

Laureano Telleriak egindako bilketa lana da. Segurarrak sakristauaren alaba zen Maria Lezetari entzunda jasoak eta gordeak. Martxoaren 25ean, eguerdiko 1,30etan, Laureanok berak, antzinako komukabidea izan den, eliz kanpaien hizkuntza berrituko du. Berak joko ditu kanpaiak. Entzuleentzako, gida moduko bat prestatu da. Jarraian dituzue kanpaikada motak eta bakoitzaren ezaugarriak.

Agoni kanpaia (Hiltzeaz zegoenaren berri emateko)

3 hil kanpai (astiro 10 segunduoro)
12 kanpai handi (astiro 10 segunduoro)
3 kanpai handi (bixi-bixi)

Hil kanpaia (Agoni kanpaia baino goibelagoa)

3 aldiz bi kanpaiak batera (astiro) gehi kanpai bueltako 1
3 aldiz (hil kanpaia/kanpai handia) gehi kanpai bueltako 1
3 aldiz bi kanpaiak batera

Hildakoa emakumezkoa bada 2 hil kanpai. **Gizonezkoa bada** 3 joaldi.

30 segunduren ondoren, hiletak egunean bertan direla zehazteko

6 aldiz bi kanpaiak batera (astiro)
6 aldiz (kanpai handia / hil kanpaia) (astiro)
6 aldiz bi kanpaiak batera

Meza kanpaia (sakristiatik jotzen zen kanpaitxo)


24 joaldi jarraian (bikarioa meza emale)
24 joaldi, ixilunea gehi 1 (bigarren apaiza)
24 joaldi, ixilunea gehi 2 (hirugarren apaiza)

Olio Santua (hiltzeaz zegoenari olioak azken igurtzia)

3 kanpai handi (zortzi segunduoro)
3 aldiz bi kanpaiak batera
3 kanpai handi (astiro)

Goizeko Ave Maria (Aimarikoa)

3 kanpai handi (astiro hamar segunduoro)
20 kanpai handi (bixi-bixi)



Segurako Eliz dorreko kanpaiak

Kanpai Handia (1950 kg.). Ezkerrekoa.
Hil Kanpaia (1450 kg.) Eskubikoa.
Kanpai bueltakoa handia (320 kg.)
Kanpai bueltakoa txikia (280 kg.)
Meza kanpaia edo kanpaitxo

Gauko Ave Maria (Aimarikoa) (Etixeratzeko ordua zen)

6 kanpai handi (bixi-bixi)
6 aldiz (kanpai handia/hil kanpaia) tartekatuz.
6 aldiz bi kanpaiak batera (bixi-bixi)
4 kanpai handi... 5 kanpai handi... 6 kanpai handi.

Harri kanpaia (ekaitza iragartzeko)

(Kanpai handia / hil kanpaia) tartekatuz (bixi-bixi)

Elizakoak (oso gaixo zegoenari Jauna ematerakoan)

5 aldiz kanpai handia (astiro)
2 aldiz hil kanpaia (astiro).

Errogatiba kanpaia (Euria erregutuz kaleetan zehar)

5 aldiz kanpai handia (astiro)
2 aldiz hil kanpaia (astiro).

Su kanpaia (Etxeak su hartzean laguntza eske deia)

Sua! Sua! Sua! Oihukatuz kalean luzez jotzen zen.

Erresponso kanpaia (Meza ondoren hildakoari eskainiz)

6 aldiz bi kanpaiak batera (astiro)
6 aldiz bi kanpaiak tartekatuz (astiro)
6 aldiz bi kanpaiak batera (astiro).

Aingeru kanpaia (Haurtxoren bat hiltzen zenean)

Kanpaibuiltakoarekin errepika kanpai berezia jo. 12 errepikatu gehi 4 (astiro)



Koadrila eguna Beasainen 1977 inguruan

Loinatz tabernako Kepa Jauregik utzi digu 1977. urte inguruko argazki hau. Koadrila egunean ateratakoa da eta 15 urte zituzten orduan argazkiko gazteek.

Zutik: Aitor Irisarri, Iñaki Paredes 'Txaki', Pako Aiestaran, Txema Marcos, Josean Saldaña, Txemari Rodriguez, Jesus Mari Cuesta 'Reskue' eta Jesus Mazo Gayol.

Makurtuta atzean: Kepa Jauregi 'Loinaz', Alex Cid, Raul Royuela 'Ratxuli', Miguel Garcia eta Koldo Donazar 'S.M.'

Eserita aurrean: Mikel Gastesi, Peio Ruiz eta Esteban Fuentes 'Bebi'.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Hautzaindegia-ludoteka
Zabalik urte osoan zehar:

- ✕ **Hautzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- ✕ **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- ✕ **Hautzaindegia-Ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- ✕ **Kangurroak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Barandiaran ZERAMIKAK

- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

ARANDIA

Garajea

LADA Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA

F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN



Kale Nagusia, 38
 ☎ 943 80 53 11
 BEASAIN

ASTE SANTUA

● COSTA BRAVA	25.100 pta	 (Busa + hotela)
● PORTUGAL	33.800 pta	
● PARIS/EURODISNEY	30.900 pta	
● SALOU	29.900 pta	 (Busa+hotela PO)
● LLORET DEL MAR	25.000 pta	 (Busa+hotela PO)
● TIROL	49.900 pta	
● VENECIA	43.900 pta	
● VENECIA/FLORENCIA	46.900 pta	
● RHIN	48.900 pta	
● AMSTERDAM/BRUSELA	48.900 pta	
● PRAGA/VIENA	102.900 pta	 (Hegazkinez)
● ERROMA	56.900 pta	
● GRANADA	36.200 pta	
● CUENCA ETA AVILA	46.300 pta	
● BENIDORM	33.000 pta	
● TUNEZ		
● MALLORCA		

ASTE
 SANTUA
 2001



PAZKO ASTEA

● ESTANBUL	75.700 pta	 (8 egun)
● MAROKO	45.500 pta	 (7 egun)
● SALOU	6.450 pta	 (Busa + apartamentua)
●	21.000 pta	 (Busa + PO)
● PARIS	29.800 pta	



IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m².
- Kalitate goreneko materialak.
Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001. urteko 4. hiruhilekoan

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
 LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

KORRIKA



BADATOR

GASTEIZTIK BAIONARAT.

Martxoak 29 - Apirilak 8

*Inoiz baino gehiago, EUSKARA bizi dadin,
bizi gaitezen EUSKARAZ*

Altzagako Udala
Aramako Udala
Ataungo Udala
Beasaingo Udala
Ezkio-Itsasoko Udala
Gabiriako Udala

Gaintzako Udala
Idiazabalgo Udala
Itsasondoko Udala
Lazkaoko Udala
Legorretako Udala
Mutiloako Udala


Olaberriako Udala
Ormaiztegiko Udala
Segurako Udala
Zaldibiako Udala
Zegamako Udala
Zeraingo Udala

APIRILAK 2

KORRIKA

GOIERRIN

Ibilbide eta
ordutegia



Parte har ezazu!

